


Pablo Zubiarrain

«Ernani Txikia»

GAZIAK ETA GOZOAK

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Bertsoak



ETOR

GAZIAK ETA GOZOAK

Auspoa Liburutegia

194

Pablo Zubiarrain
«Ernani Txikia»

GAZIAK ETA GOZOAK

(Bertsoak)



Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.

Juan de Bilbao 13. 20003 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84 85527-36-4.

D.L.: NA. 790-1988

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

ITZAURREA

Orain idatzi deten bigarren liburu au, parte bat lagunak bultzatuta egiña da. Beti ari zitzaizkidan:

— Ea beste bat noiz azaltzen diguken, guk ba-
zeukagu letzeko gogoia ta.

Alaxe asi ta egin det, Euskalerriko seme ber-
tsozale guztiak piska bat goza dezaten, bakoitza
bere gustokoarekin.

Neroni ere alaxen gozaten naiz, batzuetan bes-
terenak entzuten da batzuetan neronenak idazten,
bestetarako ez gera asko gauza ta.

Zartu egin baigera, eta orain ontantxen denbora
pasa bear, geren griña auxen degu ta. Gaiñera, be-
ti-betikoa. Ume-umetatik asi ta il arteraiño-
koa izango da noski .

Neretzat gaur ere ez dago bertsoak, esku-pelota eta trikitixa bezelakorik. Oietxek ditut nere gus-tokoak; geien gustatzen zaizkitenak, oso gureak di-ralako.

Beste batzuei beste zerbait gustatuko zaiote, le-gea dan bezela. Gaiñera, bakoitzak berea nai iza-ten du.

Ni bertso jartzeko lan ontan ez nintzan segu-ru asko sekula asiko, nere anai bat eta nere lagu-nak izan ez balira. Aiengatik segitzen det eta ne-roni ere gustatzen zaidalako. Utzi-aldi batzuek egingo ditut. Baiñan berriz ere, nere gustoko gaiak billatzean, idazten jarraituko det, euskaldunen ja-nari gozoa auxen da ta.

Eta, gaiñera, ez dedilla faltatu gu bizi geran arte; eta gero ere ez. Jarrai dezala urte askoan, mundua mundu dan arte.

Onekintxe bukatzen det. Zuek, danentzat es-keintzen det nere bigarren liburu au, eta agur da-noi! Beste bat arte!

Pablo Zubiarrain
«Ernani Txikia»
1988'ko Maiatzaren 23'an

AMETS GOZOA GAZITU

Bertso auek jarri nituen, baserritar guztia kalera zetorrela-ta. Izan ere, ain modan eduki genduen ori bolara batean. Baiña kalean ere zakurrak ankutsik. Ametsetan gozo ikusten dana, gazi biurtu, ta orixe gogoratuta.

1/ Nik ere badet anai maite bat
oso gazterikan illa,
ark Jainkoari eskatzen zion
gutaz erruki zedilla.
Baserritikan kalera datoz
neskatxa eta mutilla,
pake santuko zerua utzi
ta inpernuaren billa.

- 2/ Burua aizez betearekin
ain mundu gutxi zutela,
aita ta ama utzi zituzten
negarra zeriota.
Gaztetasunak azkar aldegin
txoriak engan bezela,
orain or dabil bazterrik bazter
nora jo ez dakiela.
- 3/ Baserri artan utzi zituzten
maitasuna ta jatena,
kristauarentzat mundu ontan dan
gauzarik aberatsena.
«Nik ala ere etxetik iges,
ura gurasoen pena,
ametsa oker irten zitzaidan
ustez ikusten nuena».
- 4/ Menditik bera jetxi ziraden
ta orain kalean bizi,
an ere gauzak gora dijoaz
naiz piska bat irabazi.
Artu orduko jornal guzia
eskuetatik igesi,
ustez gozoa genduen gauza
laister biurtu zan gazi.

- 5/ Gazteak arro dabillenean
aixa egiten du pekatu,
bizio txarren jabe eginda
osasuna ere ondatu.
Kale zar ortan etzuen beste
aurrerapenik billatu,
berriř mendira igo zan eta
amatxok antxen sendatu.
- 6/ An zegon lengo maitetasuna
ta an zegon lengo jana,
amaika aldiz damutu nintzan
etxe artatik joana.
Uste gabeko mirari batez
bildu giñan alkargana,
orain zoratzen an bizi dira
semea, aita ta ama.
- 7/ Jaio orduko bularra eman,
garbi jantzi ta txukundu,
bi besoakin estutu eta
al zan maizena laztandu.
Zuen onena emanaz azi
eta gaiñera gizondu,
guk gurasoa bear ainbeste
eztegu maite izandu.

8/ An baserrian bizi zaitezte
Jainkoa eskerturikan,
ori egiten duenak gero
ez du izango penikan.
Mundu zar ontan ez da dirurik
ta aberastasunikan
guraso onen maitetasunak
aiña balio dunikan.

9/ Gazteak uste zuten kalean
billatutzea zerua,
baiña ederki gazitu zan len
gozo zan bizimodua.
Zenbat gurasok ote dauka gaur
negarrerako gogua?
Maitasunikan ez baldin bada
alperrikan da dirua.

10/ Ta kalean zer billatu zuten?
Droga eta benenua.
An oroitu zan zeñen ona dan
mendiko aize sanua.
Biotzeraiño sartu zitzaion
egin zunaren damua,
ta esan zuen: «Ni berriz ere
lengo tokira banua».

11/ Bere semea ama maiteak
zuen garaian ikusi,
lepotik eldu ta estutuaz
musuka zitzaion asi.
Esaten zion: «Gelditu emen,
ez berriz jua igesi,
gu laister ilko gerade ta zu
izango zera nagusi».

ORAINDIK EZ DA BUKATU

Bertso auek, azkenengo gure artean izan ziran botoen gaiñean jarriak dira, ainbeste saltsa ta ainbeste kontu aditu ondoren.

- 1/ Gure artean zer pasako zan ikusten genduen aurrez, okertu giñan betiko eta zuzentzen ez dago errez. Gu alkarrekin emen borroka, Madrid'en etsaiak parrez, ez ote gera ume biurtu gizondu egin bearrez?

- 2/ Batasunaren izen eder au
ez degu gutxi aditu,
baiñan eskatzen zutenak berak
dute erditik partitu.
Gure okerrak Ama Euskera
gaixoak pagatzen ditu,
Ama iltzean bere semeak
gero nork maiteko gaitu?
- 3/ Badakizute bere umeak
nola il zuten luartzan,
nik erri oni ematen diot
animali orren antza.
Loraz beterik bear genduken
Euskalerriko baratza,
emen besterik ez da ikusten:
otea eta arantza.
- 4/ Gezurra maite dan errietan
indar gutxi du egiak,
ta euskaldunak badegu ordu
zabaldutzeko begiak.
Batasun on bat egin balute
euskaldun agintariak,
etzioten, ez, eskuetatik
iges egingo txoriak.

- 5/ Batasunaren soka ordea
nola baizegon etenda,
ara orain zer gertatu zaigun
merezia genduen-da.
Txoriak iges errez egin du
berak biali zuten-da,
denbora joan da geroko pena
alperrikan izaten da.
- 6/ Orain zertako ari zerate
besteak errudun jartzen?
Danok generala pekatariak
zertan ez degu aitortzen?
Barkaziorik ez dan tokian
zail izango da alkartzen,
ea igesi joan zan txoria
geiago ez dan etortzen.
- 7/ Gure lurra da Euskalerrria
ta izkuntza berriz Ama,
gure etsaiak ondo dakite
legez au gurea dana.
Zutikan egon nai eta ezin
badabilki naiko lana,
ez al diogu beintzat egingo
luartzak egin zuana.

- 8/ Gaixoa penak ari du iltzen
sufrituz beste min gabe,
gerok ematen dizkagulako
Amari milla naigabe.
Xenpelar zanak esandakoak
egi biurtu dirade,
zertan gabiltzan ez dakigula
ontan galduko gerade.
- 9/ Gure artean gertatzen danak
jartzen digu zer pentsatu,
gaitz bat badegu: aitortu nai ez
danok degula pekatu.
Anai arteko borroka txar au
zeiñek ote zun asmatu?
Kain da Abel asi ziran da
oraindik ez da bukatu.

JESUS ABREGO'RI

Bertso auk, berriz, neronek askotan jokatzen ikusi nuen eta ain aparta ta arrigarria zan Jesus Abrego'ri jarri nizekion.

- 1/ Amalau urterekin asi ta amaseirako nagusi, geroztik artan segitu zuen ta iñork etzuen autsi. Gizonak ez du bere aurrean obeagorik ikusi, gizarajoak arek ez al du oroigarri bat merezi?

- 2/ Doai apartak izan zenitun
gure Jainkoak emanak:
saka, aire ta errebotea,
gero gaiñontzeko danak.
Gauz oiek ondo bazekizkien
Jesus izena duanak,
zer izandu zan ondo dakigu
ezagutu genduanak.
- 3/ Danen gaiñetik ibili zuen
bere nagusitasuna,
baiñan iritxi zitzaion noizbait
pelota uzteko eguna.
Ain zan bikaiña eta aparta
bere remonte txukuna,
geroztik ura izan da emen
beti gogoan deguna.
- 4/ Guk ere ondo bagenekigun
onena, Jesus, ziñala,
aztia bezin jakintsua ta
izena bezin apala.
Alperrikako pisua gutxi,
dana zaiña ta azala,
danon Jabeak gure artean
luzaro gorde dezala.

- 5/ Izena Jesus jarri zioten,
apellidua Abrego,
arrigarrizko pelotari bat
ura izandu zan gero.
Plaza danetan entzundakoa
makiña bat txalo bero,
emen ikusi degun onena
zestua egin zan ezker.
- 6/ Zutik jarri ta danak txaloka
lenbiziko jugadatik,
bera egiten ari zan lana
ondo eskertzeagatik.
Espiritu bat zirudin plazan
gizona izanagatik,
Jesus bakarra izandu baizan
aparta besteetatik.
- 7/ Bista ona ta beso bizia,
zestuan berriz imana,
arentzat etzan pelota txarrik,
ondo artzen zuen dana.
Gero ikusi egin bear zan
arek egindako lana,
zerbaitengatik jaso zituen
ainbeste txalo ta fama.

8/ Arbolik ederrena zu ziñan
pelotarien baratzan,
Jesus izena entzun orduko
ezin kabiturik plazan.
Danok egoten giñaden pozez
noiz asiko zan zalantzan,
amaika begi gozatu zuen,
alakoxea izan zan.

EPELE'KO ITURRIA

Bertso auek jarri nizekion Epele'ko Iturria esaten genion bati. Izan ere, ainbeste trago egiñak bai-gera gu andik, eta artaz oroituta.

- 1/ Iturri ura antxen daukagu
erreka baten onduan,
gu mutikoak giñala ere
an ezagutu genduan.
Txorro artatik trago ederrak
egiñak gera orduan,
ezta iturri obeagorik
asko izango munduan.

- 2/ Mendira joan da asko nekatu,
egarritzen giñanean,
arkaitz artako iturrira gu
joaten giñan zuzenean.
Nai gendun aiña bai edan ere
bearra zegoenean,
zer atsegiña ematen zuen
gorputzaren barrenean!
- 3/ Mendingan zauden iturritxoa,
esan det amaika aldiz
gure botika ziñadela zu
geundenerako egarriz.
Arkaitz ortantxe jaioa ziñan
ez dakigu zer mirariz,
baiñan fedea izan dezagun
guztiona dan gidariz.
- 4/ Zartu naiz baiña txoko artara
joaten naizen bakoitzean,
zu ikusita alaitasun bat
sentitzen det biotzean.
Arkaitz artatik edana bainaiz
mutikoa nintzanean,
etzaitezela beintzat agortu
Jainkoaren izenean.

- 5/ Danon Jabeak jarri zinduen,
arkaitza, ura ematen,
kristau guziak beartutzean
andikan edan zezaten.
Legorteak ez zaitu agortzen,
otzak etzaitu jeltzen,
zu bai zeradela mirari bat
jarri ezkeru pentsatzen.
- 6/ «O, Jaungoikoak zer mirariak
egin zizkigun munduan!»,
begira jartzen giñaden eta
askotan esan genduan.
Arkaitzak nola lezaken sortu
oinbeste bere barruan?
Zuk beti berdin ematen dezu
udaran eta neguan.
- 7/ Tantoka ikusi izan ditugu
izardituta arriak,
eta aietxek izaten dira
arkaitzeko iturriak.
Ikusten ari geraden gauzak
ez al dira mirariak?
Kristauarentzat begien bistan
noizbait Norbaitek jarriak.

8/ Iturri ortan edaten zuten
mendiko ardi gaixoak,
beste egazti askok ere bai,
txoriak eta zozoak.
Ni ere noizbait akordatu naiz
zuri jartzea bertsoak,
oroimengarri kanta dezaten
Epel-alde'ko auzoak.

GURE ARRANTZALEAK

Bertso auek jarri nituen, gure arrantzale giza-
rajoak beti munta pagatzen nola ari baitiran, ori-
xe gaitzat artuta.

- 1/ Ogia itxasotik jan bear
ta or dabil beldurtuta,
noiznai barkuak kentzen dizkate
prantzesak arrapatuta.
Beren portura eraman da an
jartzen dituzte lotuta,
ekartzen ere geio ez utzi
pagatu artean munta.

- 2/ Mundu guztian ugaritutzen
nola dijoan lapurra,
aurki oientzat bearko da guk
egiten degun apurra.
Lendikan ere zer pasako zan
artuta geunden beldurra:
prantzesentzako itxasoa ta
España'rentzat lurra.
- 3/ Ezin bizia badator eta
asi gerade nastutzen,
emen urtetik urtera gauzak
ari baitira estutzen.
Ikusten degun etorkizunak
ez gaitu asko poztutzen,
berriz e onek gerra dakarki
au ez badute moztutzen.
- 4/ Dotriñak jarri arren danentzat
egi borobil askuak,
mundu ontako agintariak
dabiltza ori aztuak.
Berak beiñere faltarikan ez,
gu gera beti gaiztuak,
pasatzen ari geranak emen
trantze larri ta estuak.

- 5/ Gerra-ontziak jarri dituzte
arrantzaleen goardian,
aurrera iñor pasa eztedin
aik jarritako neurrian.
Legorrean e dana etsaia
Españia'n da Prantzia'n,
ta gu ementxe purgatoioan
bi inpernuren erdian.
- 6/ Kulparik gabe beti supritzen,
badegu nork agindua;
guztiok degu erru piska bat:
errespetoa galdua.
Bi milla urte diran garaian
bukatzen bada mundua,
eztute asko agindu bear,
gaiñean dute ordua.

ANTZIÑAKO GURASO ZARRAK

Auek, berriz, gure antziñako guraso zarren bizitzaz pentsatzen jarrita ipiñi nituan: aien mundua, beren oiturak, errespetoa, gaur ez daukagun maitasuna eta beste milla gauza. Igande-goizetan meza nagusia, arratsaldean bezperak eta illuntzean erro-sario santua. Ori etxe askotan egiten zan.

Etzan gaur bezelako aurrerapenik. Aitzurra ta laiaz ibiltzen ziran soroak, urte guziko artoa eta garia egiteko. Baba beltza, ardi-gazta, txerriak, naiko eiza mendian eta amurraiak ibaian. Etzala dirurik izaten? Ez-ta gaur aiña bearrik ere. Bizitza lasaiagoa, alkarrentzat maitasun geiago.

Gaur, ordea, katean lotutako zakur amorratuak dirudigula jarriak gaude, alkar ikusi eziñik bezela. «Ez badek pentsatzen nik bezela, i txarra ta ni ona». Ara asko ikasteak zertara ekarri gaituen.

- 1/ Esku zabalekoak
ta biotzez onak,
oiek ziran emengo
urrezko amonak.
Izarditik egiñak
zituzten txanponak,
alakoak dira gaur
falta ditugunak.

- 2/ Goizean jeikitzean
otoitzak Jaunari,
eguneko nekeak
eskeiñi Berari,
eta gero ekingo
zioten lanari;
ondo aztuta dago
oitura zar ori.

- 3/ Gaur ainbeste eskola
ez izan arren len,
oitura ona asko
izan ziran emen.
Bat jaungoikotasuna
zeramaten barren,
olakoxe amonak
izaten ziraden.

4/ Lengo amonak ziran
gure amen amak,
gaitz asko egin gabe
emendik joanak.
Zeruan alkarrekin
antxe daude danak,
Norbaitek sarituta
egindako lanak.

5/ Aurrera egin omen
degu gauz askotan,
ez ote zan ohea
egotea lotan,
ainbeste zikinkeri
ikusitzekotan?
Negarra sartu da gaur
fameli prankotan.

6/ Orduko amon aiek
dakazkit goguan,
atzeratuak omen
zirala orduan.
Ara aurrerapenak
zer ekarri duan:
gaur e ezin bizia
orduko moduan.

- 7/ Iñulabarrez irten,
goizean etxera,
erdi drogatutako
mozkorren antzera.
Zerbait esaten asi,
aundigoak bera,
orixen da askoren
gaurko ibillera.
- 8/ Ori egiten dute
oraingo gazteak,
batzuek ez bada're
beintzat bai bestek.
Nun ditugu orduko
amona maiteak?
An goian, zabaldua
Norbaitek atek.
- 9/ Amon aiek e gazte
izan ziran emen,
baiñan etxera zintzo
illundu baiño len.
Gurasoen ordenak
zorrotzak ziraden,
libertade geiegik
ara zer dakarren.

ZOZO BATEN NEGARRA

Bertso auek jarri nituen bein, zozo baten gertaera ikusi ondoren. Gaixoari bere umeak kendu zizkaten kabitik. Aita ta ama karraxika, zerbait egin naiean. Aita tiroz il zuten, ta ama eritu. Egoa autsi zioten. Eta gaixoak geroztik ez du kantatzen. Ain naigabetua gelditu baizan.

- 1/ Udaberrian sartu gerade
aldeginda neguari,
orain mendiko arbol gaiñetan
txoriak pozez kantari,
berak biotzez ain maite duten
Jaunaren eguzkiari,
argi berri bat ekarri naian
illa dagon munduari.

- 2/ Kabi berriak egiten laister
asiko ziran zozoak,
guk ere pozez entzuten giñun
beren abesti gozoak.
Aik egiñalak alaitu naian
gizonak eta basoak!
Maitasunaren zabaltzailleak
zuek zerate, gaixoak.
- 3/ Egun batean ikusi nuen
txori bat bere kabian,
umeak zeuzkan jaio berriak
artean larru gorrian.
Neri begira etzeukan arek
makar aundirik begian,
igartzen nion esan naiean
andikan joan nendian.
- 4/ Jaio berriak izan gaixoak
eta, ez ikusi arren,
azkar igartzen zioten amak
berentzako zer zekarren.
Gora begira jarriko ziran
al zutenikan azkarren,
amak zekarren jan gozo ura
berentzat izatearren.

- 5/ Bereak izan nunbait gaixoak,
maite zitun biotzetik,
naiz-ta etziran zuzen ibili
berak nai zuen bidetik.
Ondo lumatu baiño lenago
egatu ziran kabitik,
geroztik amak malkoa pranko
bota du bere begitik.
- 6/ Gaixoak egan gutxi egiten,
uste bai bazekitela;
arrapatu ta kaiolan sartu,
bizi guziko kartzela.
Amak jakindu zuen garaian
umeak preso zeudela,
geroztik ortxen dabil negarrez
zer egin eztakiela.
- 7/ Gizona dala animalia
ez al zaizu iduritzen?
Geok ikusi izan ditugu
gaixoak tiroka iltzen.
Askatasuna beste gauzarik
eztan garaian aditzen,
errugabea zertan ez utzi
munduan libre bizitzen?

AITON BATEN KEZKAK

Bein aiton batek bere kezkek eta larritasunak eta erretiro eta ezin bizia kontatu zizkidan. Gizarajoa estu samar baizebillen. Eta artaz oroituta bertso auek ipiñi nituen.

- 1/ Lengo batean jakintsu bati entzuten egon giñaden, bi urte barru lanikan eza doblatuko zala emen. Ta orrek ondo badakizute zer ondorena dakarren, obe dezute zuzentzen asi dana okertu baiño len.

- 2/ Agindu asko egiten dute
baiña gutxi aurreratu;
agintariak, badaukazute
zuek ere zer pentsatu.
Erriak bere arrazoia du
bizitzeko lain eskatu,
etzazutela beartsurikan
oinbesteraifño zanpatu.
- 3/ Guk badakigu emen norbaitek
bear duela nagusi,
baiñan bizitza ez galestitu
ta geiegi irabazi.
Kontzientziaz kristau bezela
nai badezu lasai bizi,
zuzentasunak emen etxetik
asi bear du lenbizi.
- 4/ Engañatzeko piska bat eman
ta gero doblea kendu,
emen jarrita dagon legeak
beintzat ala egiten du.
Badakizute zenbat bear dan
jazteko eta mantendu,
zuzentasunik ez izateak
gerra berak ekartzen du.

- 5/ Erretiroa artuta dagon
aitona baten aotikan,
aditzen nion bizitzeko're
ia etzeukala pozikan.
Ardo piska bat ere naita're
ezin osatu sosikan,
duro batzuek eman nizkion
ondo errukiturikan.
- 6/ Gizarajoak eskertu zidan
malkoz bustita begiak,
esaten zidan: «Sinistu gero
oiek dirala egiak».
Amabost milla ditut nereak,
ogei andrea ta biak,
orrekin jarriko nituzke nik
dauzkagun agintariak.
- 7/ «Baratzui-zopa bakarrik janda
askotan naiz oeratu,
eta —ala zion gizarajoak—
oi ez dedilla faltatu».
Zapata zarrak konpondu nizkan,
berriak erregalatu,
gizarajoak ez daki orain
eskerrak nola pagatu.

8/ Esango dute: «Guk langillea
maite degu biotzetik».
Baiñan gu ere aspertu gera
betiko arpa jotzetik.
Bistatik gorde orduko parra
egingo'izute atzetik,
or ikusten da zenbat daukaten
gizontasun da lotsetik.

GURASO ZARREN BIZIMODUA

Bertso auek jarri nituen lengo guraso zar aiek egiten zituzten lanak eta nekeak akordatuta. Orduan laian eta karobi zarrakin eta aitzurrez egiten baizituzten danak.

- 1/ Ogibidea nekazaritza
zuten lengo gurasoak,
lur zekenean zenbat izardi
ixuri zuten gaixoak?
Nun dira lengo gaztain da pago
ta ardi-larre gozoak?
Gaur badirudi lutoz jantziak
daudela gure basoak.

- 2/ Alegin danak egin zituen
jendeak piñua jartzen,
ta ordutikan asi ziraden
emengo artzaiak galtzen.
Kukuak ere mututu ziran,
orain ez dute kantatzen,
mendian ere ez degu lengo
usai eder ura artzen.
- 3/ Lur zekenean latz oitua zan
euskaldun nekazaria,
soroak laiaz jiratzen ziran,
aitzurrez egin garia.
Gero etxean izaten zuten
urte guziko ogia,
ura izaten zan ixuritako
izardi danen saria.
- 4/ Lenago sasi utsak ziranak
landu ta soro berriak,
garai bateko guraso zarrak
ziraden emen jarriak.
Lurra zegona baratza egin,
pilletan jarri arriak,
eta orduan paradiso bat
zirudin Euskalerrriak.

- 5/ Dana bear ta ardiz beteak
Euskalerriko basoak,
ogibidea ura baizuten
orduko artzai gaixoak.
Apal ondoan asiko ziran
amonaren errezoak,
Jaunari ondo eskertu naian
nekeen sari gozoak.
- 6/ Karobi zarrak bukatu ziran,
ezta egiten besterik,
lengo aitonak bezela ezta
saiatzen gaurko gazterik.
Argatik lurrak ez du ematen
garai bateko protxurik,
mendiak ere ez daukate gaur
len zedukaten itxurik.
- 7/ Aurrerapena bear omen zan,
ara galanta ekarri,
baiñan gaur ere bizi eziñik
jendea ementxe larri.
Emen gizonak errespetoa
izatezkero alkarri,
agintariak, obe dezute
gauzak berdiñago jarri.

IDI ZARRARENA

Aurten eskursio bat jarri digute, gu bizi geran erri ontatik Rioja aldera. Antxen izan giñan gu ere, egun eder bat paseaz.

Logroño'raiño joan giñan, ta an batzuek elizak ikusten, da beste batzuek dendak eta kaleak, eta tabernak ere bai. Danetik. Ta gero Haro'ra bazkaltzera. Bai ederki bazkaldu ere.

Urrengo egunean jarri nintzan pentsatzen: anima apartatuta, idi zarrak bezela gera. Bada esae-ra bat: «Idi zarrak ere, ondo jan da deskantsuan egon ezkeru, ipur-saltoka asten dituk». Eta guri ere zerbait olako pasako zaigu.

Aruntzean, danak ixil-ixilik joan giñan. Baiñan bazkalondoan bazan berriketa: batzuek, bazkari ona zala; beste batzuek, ez artaraiñokoa. Beste

batzuek, bati arkume-puska aundiagoa tokatu zitzaiola; besteak, ura etzala arkumea; ura borroa zala; eta besteak, berriz, ura antxumea zala.

Bai ta ez, aiek zalapartak! Danak arrazoi ta txandik artu ezin. Bazkari onaren indarra. Guri ere idi zarrarena gertatzen nunbait.

1/ Lasarte'tikan atera eta
Estella'n gelditu aurren,
baiñan bigarren ekiñaldian
Logroño'n gelditu urren.
An genbiltzan kalean,
zerbait artu naiean
tabernan sartu giñaden,
bai antzeman e: «Berriak dituk»,
an azeriak zai zeuden.

2/ Amabi duro baso ardoa
eta sei baso-erdiak,
ala kobratu ziguten beintzat
Logroño'n tabernariak.
Erretiro kaskarrak
dauzkagu lengo zarrak,
poltsatik ere urriak,
kastigu danak izango dira
guk pagatzeko jarriak.

- 3/ Andik onera ekarri eta
merkego saldu Lasarte'n,
ta ea ori nola liteken
galdera egin nioten
ango bi gizon zarri,
begiratzuz alkarri;
ta parrez ala zioten:
«Gauzak alaxe izaten dira»
laster erantzun zidaten.
- 4/ Ia bi ordu Logroño'n pasa
ta gero andik Haro'ra,
jan eta edan egin genduen
ia lepotikan gora.
Asi zan iskanbilla,
arrotu zan umilla,
kanbiatu zan denbora;
gure jan onak arrotu giñun
idi zarraren modura.
- 5/ Matsa ta gari tartean pasa
genduen egun lasaia,
ura kanpoen edertasuna
ta ura berde-usaia!
Andreak diskutitzen
ta guri ez utzitzen,
berak beti arrazoia;
oraindik ere ongi jatean
etortzen zaigu sasoia.

- 6/ Bide guzian joan ziraden
alkarri kejak kontatzen:
anketan reuma zeukatela ta
ura etzala sendatzen.
Bazkaldu eta gero
jarririk erdi bero
jendea asi zan dantzatzen;
irrintzia ta salto egiñez
reuma etzan gogoratzen.
- 7/ Etxetik irten giñadenean
etzan entzuten itzika,
baiñan bueltan ez genduen, ez,
joan giñaneko antzika.
Txandikan artu ezin,
gu ez giñan edozin,
saltoka ta irrintzika;
bazkari ona izango zan gu
sendatu giñun botika.

BESARKADA BAT

Orain dala urte asko Ameriketara joandako anai bat badu nere emazteak, eta urteak bere berrik jakin gabe pasa ditugu. Baiñan bizi dan arrastoak jakin berri ditugu bere semeari esker, eta ordaiñez bertso auek biali nizkion.

- 1/ Au orrelaxe idatzitzeko zure arrebak esan dit, besarkada bat al dan aundiña artu dezazun gugandik. Irurogei ta bi urte dira joan ziñala emendik, karta batetik ikasi degu bizi zerala oraindik.

- 2/ Zure berriak bialtzen ditu
zerorren seme prestuak,
ta nik ordaiñez orain emendik
bialtze'izkizut bertsuak.
Bere semeak or Arjentina'n
asko ditu Gipuzkua'k,
ta siñistatu emen zuentzat
gu ez gaudela aztuak.
- 3/ Badakigu, bai, urteak asko
egin ziñula mendian,
zaldi gaiñean egun osoak
arrantxo baten goardian,
ia kontatu ezin litezken
bei-mordo baten erdian,
ta atsedena artuaz orain
or omen zaude errian.
- 4/ Lur maite ontan ez egon arren
joan ziñaneko garaiak,
besarkada bat emateko zai
emen dauzkazu anaiak.
Gure biotza pozez jarri du
zuek ikusteko naiak,
jaioterrira etorri eta
egingo ditugu jaiak.

- 5/ Or ere urte-mordoa bear
lanetik aberastutzen,
gutxitan beintzat oso zaila da
ez baldin bada ostutzen.
Zuen berriak jakiteak gu
ez gaitu gutxi poztutzen,
oso maitea izandako bat
ez da nolanai aztutzen.
- 6/ Aita zurea ta dezun ama
emendik joanak dirade,
orain or bizi diranak baiño
aik emengoak alare.
Ta zu, illoba, etorri lasai,
osaba-izebak zai gaude,
emengo arbolen zaiñetatik zu
ere sortua zerade.
- 7/ Osaba-izebak emen dauzkazu
egiñak naiko zartzera,
baiñan zuentzat gordetzen degu
lengo maitasuna bera.
Etorri zaitez zere odoleko
sendiak ezagutzera,
aspaldi ontan zure zai dagon
aita jaio zan etxera.

GIZON ZUR BATEN KONTUAK

Bein, Naparroa'ko erri batera joan eta an esan zizkidan gizon batek erri artako gizon zur baten kontuak. Ezkondu omen zan, baiña bai azkar apartatu ere. Bialdu egin omen zuen andrea, asko jaten zuelako; ta bakarrik bizi omen zan, pezeta bat gastatzeko beldurrez, goseak amorratzen. Ta esan zidaten dozen erdi bat bertso jartzeko, ta alaxe jarrriak dira onako auek.

- 1/ Esan zidaten: «Gizon zur oni
jarri akizkak bertsoak,
amar baserri bereak ditu
eta gaiñera basoak.
Errukarriak lurak arekin
muga dituzten gaixoak,
izen berria orain *Sekante*
jarri diote auzoak.

- 2/ Bizi guztia pasatu zuen
auzoarekin erritan,
juizioak e diruarekin
irabaziaz erditan.
Limosna asko etzuen utzi
etxe ondoko ermitan,
neri bai munta nenbillelako
bere soroan erbitan.

- 3/ Langillea ta zintzoa zala
ezin liteke ukatu,
bestela ezin zeukan aiñeko
diru-mordoa pillatu.
Modan jazten da trajetan arek
etzuen asko gastatu,
illobak eta abogaduak
etziran gaizki gozatu.

- 4/ Bizi guztian galtza-pare bat,
gaiñera zikiñ-zikiña,
listaiarekin berak josita
zakuarekin egiña.
Petatxuak bai aurre ta atze
beraren urteak aiña,
sastreak eta dendak akabo
danak berdiñak bagiña.
- 5/ Buru guztia soildu zitzaion
eta bizarra luzatu,
guraizeakin moztutzen zuen
eta alaxen pasatu.
Erri artako barberorikan
etzan arekin gozatu,
kolonia ta jaboitan ere
etzuen asko gastatu.
- 6/ Otzikan ere etzuten pasa
aren gorputza ta oiñak,
nola baizeuzkan txikitatikan
azal lodia egiñak.
Dana etxeko materiala
albarka ta kaltzetiñak,
ardi-illea biurrituta
etxeko jenero fiñak.

Ia illean zegoela, illoba bat joan oman zitzaion ikustera, ta ala esan omen zion:

— Beste urte beteko bizia baneuka, beste mila duro sobratuko nizkiken.

ILLARGIA

Bein, nere lagun bat eta biok parranda pixka bat egin da etxera gentozela, illargiari begira jarri ta esanaz egon giñaden:

— Au ere Norbaitek egin ziken, ba!

Oraingo inmentoreak baiño obeak bazirala noizbait aritu giñan. Orixe gogoratu ta jarriak dira bertso auek, zerbait jarri bear-da.

1/ Zu nork egin zinduen
goi ortan, illargi?
Asko lezaken Batek,
ikusten da garbi.
Batzuetan oso ta
besteetan erdi,
gabaz mundu guztian
egiten du argi.

- 2/ Gaur ere mundu ontan
azkarrak badia,
badakigu ematen
bakoitzai beria.
Illargirik ez dute
egiten ordia,
obe degu lengoan
eduki fedia.
- 3/ Gaur gera jakintsuak,
badakigu dana,
baiñan sinismen gutxi
lengo gauzengana.
Aintzakotzat ez artu
aita eta ama,
ori da emen sarritan
egiten dan lana.
- 4/ Norbaitek guretzako
aspaldi jarriak
or goian eguzkia
eta illargiak.
Nor ez gaitu poztuko
beren mirariak?
Jainkoaren parolak
dira oiek biak.

- 5/ Illargia nai dute
gizonak artu ta
besteren terrenoan
dabiltza sartuta.
Ea gelditzen diran
bideak galduta,
Jaunak lengo lekuan
aginduko du-ta.
- 6/ Lurrarekin batean
sortu zan illargi,
illuntzen zuenean
egiteko argi.
Zu sortu zinduenak
bazekien ongi,
mirari bat zerala
ikusten da garbi.
- 7/ Gaur gizonak zer gauza
ez ditu sortuko?
Satelite berriak
eta milla truko.
Alare illargia
ez dute artuko,
etsairikan ez baita
zeruan sartuko.

8/ Millaka ta millaka
milloiak gastatu,
baiñan an ezin dira
betiko geratu.
Zer egiten dezuten
ondo erreparatu,
obe dezute bea
ondo gobernatu.

9/ Gizonak ezin lortu
illargi ta izarrik,
satelite guztiak
dirade alperrik.
Ez du menderatuko
Jaunaren indarrik,
an naikoa da lengo
Jabea bakarrik.

BARRUTIK NEGARREZ

Orain gutxi Kanbo'n izan naiz, eta pentsatzen jarri garai batean dana libre izan giñala; eta orixe gogoan artu ta alaxe jarriak dira bertso auek.

- 1/ Zoragarrizko gauzak baditut
nere begiz ikusiak,
Isaba'tikan gora asi ta
dauzkagun gauza guziak,
ango ardien zintzarri-otsa
ta beorren irrintziak.
Naiz ondo jakin bat geradela
gure zazpi probintziak,
alare muga jarri ziguten
Españi eta Frantzia'k.

- 2/ Lur au guretzat egiña zuen
guztiona dan Jabeak,
baiñan etsaiak sortu zitzaizkan,
gaiñera lotsagabeak.
Arrezkeroztik ditugu emen
olako atsekabeak,
euskaldunari utzi nai ezik
gordetzen beren legeak,
ordutik galdu ziraden emen
Aitorren libertadeak.
- 3/ Beldurgarria beti izan da
arma gogorren indarra,
txikia azkar ondo zanpatu
eta gaiñetikan parra.
Ondo zekiten nola giñaden
gu fameli bat bakarra,
orretxengatik jarri ziguten
bizi guztiko negarra,
jakin zazpiak bat generala ta
aparte bizi bearra.

- 4/ Euskalerriko mendietan gu
libre oituak ibiltzen,
artzantza eta lurrak ematen
zuenarekin bizitzen.
Gure arraza garbia zan len,
orain ari da zikintzen;
Ama negarrez ikusi arren
eta umeak sufritzen,
gure etsaiak diraden oiek
ez dira asko kupitzen.
- 5/ Euskalerriko mendiak ziran
gaztain da pagoz beteak,
baiñan ederki zikindu ditu
piñuak eta oteak.
Sufrimentua dakar guretzat
derriorreko pakeak,
guk ez daukagu agindutzerik,
itxi zituzten ateak,
lenago libre ibiltzen giñan,
orain dauzkagu kateak.

- 6/ Arbol sanoa eta ederra
zulatutzen badu arrak,
azkar asiko zaizka igartzen
ostuak eta adarrak.
Euskalerrian au egin zuen
etorri zan kanpotarrak,
bertakoaren laguntzarekin,
etziran aiek bakarrak,
olaxen asi giñan galdutzen
emengo oitura zarrak.
- 7/ Amaika neke egiñak gera
besterentzat on-bearrez,
beldurtu ere egiten da bat
entzuten diran gauz txarrez.
Len aberatsak omen giñaden,
orain bete gera zorrez,
geren lurrean besteren morroi
nagusi jartzeko ordez,
alai-itxura egiten degu
baiñan barrutik negarrez.

ARITZ BATEN BIZITZA

Bertso auek jarri nituen aritz-arbol bat banintz bezela.

- 1/ Ni arbol bat naiz sortu nintzana mendian arkaitz onduan, ezkur-ale bat nunbait bizirik an gelditu zan neguan. Udaberria etorri zan da aretxek piztu ninduan, pixkabanaka azi nedien gero urteen buruan.

- 2/ Ezkur artatik muskil txiki bat
azaldu nintzan aurrena,
lurrean zaiña itsatsi eta
gora jo nuen urrena.
Gorputza gero adar da ostoz
tapatu zitzaidan dena,
ta izan nintzan mendi artako
arbolikan ederrena.
- 3/ Urte askoren buruan baiña
ni azitzen egunero,
bitarte artan pasea nintzan
amaika otz eta bero.
Jela, elurra ta aize miña
eta eguzkia gero,
zer izaten dan badaki batek
aurrez probatu ezkerro.
- 4/ Nere garaian ni ere asi
nintzan ezkurra ematen,
usoak eta ango piztiak
maitasuna bazidaten.
Zenbat basurde aundi ta txiki
an allegatu zan jaten?
Nere frutuak pizti aientzat
etziran txarrak izaten.

- 5/ Amaika txori politen kantak
pozez entzuna nago ta
txantxangorria egunsentian
an asiko zan txioka.
Ark bazekien arbol-zuloan
nola egoten zan ontza,
arentzat biak berdiñak ziran
beroa bezela otza.
- 6/ Ez dakit zenbat urte dituten
baiñan bai zarra naizela,
ni ez ninduen aizeak orren
errez botako bestela.
Obe luteke an banengoke
zutik lenago bezela,
seguru nago ango piztiak
pena izango dutela.
- 7/ Nere frutua jaten zenduten
ainbeste uso ta txerrik,
pena bat daukat: zuek goseak
utzi bearra bakarrik.
Nere adarrak igartu ziran,
ez det emango ezkurrik,
emen ez baita iñor betiko
etorritako pizkorrik.

- 8/ Arbol azpian ainbeste pizti,
nik goitik ezkurra bota,
jan zezatela nai zuten aiña
ortarakoxe nago-ta.
Muxarra ere nere gaiñean
an ibiltzen zan saltoka,
sapelaitzak e ni izan nindun
lo egiten zuen kota.
- 9/ Ni arrapatu ninduen gero
ezkurrik eman eziñak,
gorputza untzak tapatu zidan
ta igartu zaizkit zaiñak.
Txepetxak ere nere gerrian
amaika kabi egiñak,
piztiak izan ziraden nere
maitalerikan aundiñak.
- 10/ Zer gauza piska geran lur ontan
ez naiz oroitu izandu,
—au aize arek len botatako
arbola zarrak esan du—.
Sortu nintzaden da gero azi,
igartu eta usteldu,
emen gizonik jakintsuenak
ere ala egiten du.

BURDEOS'KO PERIA

Bertso auek jarri nituen Burdeos'ko peria ikusita, ango makina ta ango azienden edertasuna ta an ikusi genduen faisán bat akordatur.

- 1/ Eder askoa ikusi gendun
Burdeos ortan peria:
zezen eta bei, beor da zaldi,
ardiak eta aria.
Beste egazti asko ere bai,
faisán bat arrigarria,
joaten ziranak ikusitzeko
nunbaitetik ekarria.

- 2/ Ezta alako egaztirikan
asko izango munduan,
bestek esanda nola sinistu
ikusi ez bagenduan?
Arrigarria eta aparta
beste guztien onduan,
nere lagunak il arteraiño
izango dute goguan.
- 3/ Jaso zituen txalo guztiak
ditu ondo mereziak,
etxerik ez du asko galduko
azi zuen nagusiak.
Sari ederrak izan baiditu
arekin irabaziak,
bost urte ontan ia Europa'n
izandutako guziak.
- 4/ Ura zala-ta atera gendun
bidean amaika kontu,
danak berari begira eta
iñor ezin zan aspertu.
Etzan arraultzen batetik ura
landare makala sortu,
beraren jabe dan nagusia
egon liteke kontentu.

- 5/ Zerbeza lasai edaten zuen
eta guk bezela jana,
ez dakit nola azi zan ura
orrenbesteko faisana.
Izketan ez du egiten baiña
entenditzen zuen dana.
«Oi da gauzaren edertasuna!»
makiña batek esana.
- 6/ Burdeos ortan nola urtero
izaten diran periak,
asko zebiltzan aruntz joanda
emengo nekazariak,
ikusten ari ziran gauzakin
gozaturikan begiak;
lengo atxur da laiak ez dira
an zeuden makineriak.
- 7/ Makina ederrik ikusi gendun
ta gaiñera geron begiz,
danon Jabeak bear ainbeste
lurra eman zuen berriz.
Danentzat jana sortu liteke
eta gaiñera bi aldiz,
gaur misilletan gastatzen dana
ortan gastatuko balitz.

8/ Aurrera goaz gauzetan baiña
ez gaitezen asko pio,
egin dan lana gero makinak
berak kendutzen badio.
Danak korrika bizi gerade,
mantsuak ez du balio,
au etorri da aurrerapenak
sortu dirala medio.

ORDUTIK GAURKORA

Bertso auek jarri nituen umetako gauzak gogoratuz, ordutik gaurkora dagoen aldea ikusi eta orretxengatik.

- 1/ Kolkoan alpargatak,
bidean ankutsik,
eta gaiñera aiek
giñunean pozik.
Guk ez genduen izan
orain dagon gauzik,
erotu ere ia
egin gera kasik.

2/ Gaurkoak ez dabilta
lengoen antzera:
kotxean eskolara,
kotxean etxera,
jan da jantzi're ondo
markesen antzera;
aundi-naiak dakarki
mundua galtzera.

3/ Amar urte baiño len
morroi aterata,
nola ez degu eukiko
eskolaren falta?
Duro bat izaten zan
illeko soldata,
aurreratuko gendun
pilla bat galanta.

4/ Egon izandu gera
zarrari aditzen,
ta arrazoi dutela
zaigu iduritzen:
txikitatik ez bada
pixka bat sufritzen,
ura ez da geiago
gustora bizitzen.

5/ Oiek mundura jαιο
baiño lenagotik,
gu sufritzen oituak
giñaden gogotik.
Neronek entzun nuen
gazte baten aotik:
«Zuek tontoak izana
guk ez degu kulpik».

6/ Len mundua beteta
omen zegon tontoz,
listo geiegiz baiño
jatorrago askoz.
Geiegi aurreraka
joan geralakoz,
arroak umiltzeko
orduak badatoz.

7/ Naiz gutxi nekatu ta
asko irabazi,
alare ez da kontentu
emen iñor bizi.
Aundi-naia jarrita
daukagu nagusi,
ara mundu guzia
inbiriak josi.

- 8/ Zerbait ere gaitz txarra
dabilkigu emen,
sartuta daukaguna
gizonak barrenen.
Guk zarrak badakigu
zer izaten zan len,
askoz konformeago
bizitzen giñaden.
- 9/ Jaunak, etorkizuna
zailla da jakiten,
orregatik gabiltza
danok irakiten.
Lengo tontoak ere
ori bazekiten:
emen ez dala jango
ez bada egiten.
- 10/ Beti oker atera
egindako ametsak,
argatik sortzen dana
ez degu guretzat.
Emen au datorrela
iduritutzen zat:
gutxik egin bear gaur
alper askorentzat.

ELIO BERTSOLARIARI

Bertso aukeratu jarri nizkion, urte askoan ain lagun izan nuan Inazio Berasarte Elio bertsolariari.

1/ Len alkarrekin ibiltzen giñan,
gaur bizi gera aparte,
ez nengon lasai bertso batzuek
berari ipiñi arte.
Guregandikan joan ziñala
badira ogei bat urte,
bere lagunak gogoan degu
Inazio Berasarte.

- 2/ Sagarrez betetako etxean
jaioa zan seme ori,
trago bat etzion ukatuko
aruntz joaten zanari.
Beiak larrean jarri ta bera
txistuka eta kantari,
gizarajoak etzion egin
gaitzik lagun urkoari.
- 3/ Seme jator bat mundu ontara
sortu zuten gurasuak,
amaika aldiz alaitua zan
etxe ondoko basuak.
Ura il zan da bukatu ziran
txistuak eta bertsuak,
Jaunak e nunbait beretzako nai
ain gizon umoretsuak.
- 4/ Arek dirurik etzuen maite,
lagun urkoa gogotik,
orgullo asko etzuen izan
aundi-naia ta arrotik.
Jainkotasuna sentitzen zuen
ta biotzaren barrutik,
lege zarreko gizon jator bat
joan zitzaigun mundutik.

- 5/ Gizona dago inbiriak ta
gorrotoak ondatua,
baiñan, Elio, zu etziñaden
izan klase ortakua.
Esku zabala guztientzako
eta biotz osokua,
Euskalerriko lengo guraso
zar aiek bezelakua.
- 6/ Istripu batez ilda emendik
eraman zuen Jainkuak,
gizarajoak egin zituen
emengo egitekuak.
Urte askoan izandu giñan
lagun alkar maitatuak,
gaur ere pozik artu litezke
ura zan bezelakuak.
- 7/ Gizarajoa gure naiean
etzan emendikan juan,
berdintasunik ez baizenduen
gizonean da sanuan.
Guretzat ere urte askorik
ezta geratzen munduan,
ea len banatu ginduenak
berriz bildutzen gaituan.

8/ Leno korrika ibiltzen giñan,
orain poliki-poliki,
pixkabanaka zer datorkigun
ori norberak badaki.
Laister gerade zure ondoan,
toki pixka bat eduki,
Josafateko zelaira arte
agurtzen zaitut, Iñaki.

URA ETA ARDOA

Bein taberna batean diskusio bat sortu zan: ardoa zala edaririk onena batzuek, eta beste batzuek ura zala. An entzun genituenak entzun da gero, bertso auek jarri nituen.

- 1/ Onena ura zala batzuek,
beste batzuek ardua,
ezerrezetik asi ziran da
ura zan eskandalua!
Alkarri antxen esan zioten
txorua eta alua,
pazientziak aituta dago
gizonarentzat mundua.

- 2/ Ardoak gaixo jartzen gaitula,
besteak berriz sendatu,
bai eta ezetz asi ziran da
etzuten txarra armatu.
Kontentu egon litezke artan
ziradenean geratu,
atera zuten eskandalua
etzuten errez bukatu.
- 3/ Edaririkan onena zala
edan ezkeru negurriz,
ta batek zion: «Neronek ere
entzun det amaika aldiz».
Ta beste batek aldamenetik
au zion erdi-pikardiz:
«Ardorik ez litzake izango
urik izango ezpalitz».
- 4/ Batzuei ura gustatzen eta
besteai ardoa berriz,
iturria're gauza ona da
gaudenerako egarriz.
Aitona batek au esan zuen
arrazoietara jarriz:
«Biak dirade gauza ederrak
edan ezkeru negurriz».

- 5/ Gizon guztiak izate'itugu
bakoitzak gere oiturak,
eta errezak dira bukatzen
guk darabilzkigun dudak.
Alkolarentzat ez du balio
sendagillearen kurak,
oik sendatze'itu Zestoa'n dagon
balnearioko urak.
- 6/ Negurritikan kanpora oso
gaitz egiten du edanak,
ta asko izan uste gabean
errez pasatzen geranak.
Alkolak laister egiten ditu
gizon indartsuen lanak,
ortik geiegi egindakoan
erotutzen dira danak.
- 7/ Sano daudenak gaixotu eta
poltsako diruak kendu,
gizonarentzat gero negarra
orretzek ekarritzen du.
Akordatutzen geranerako
nola izaten dan berandu,
ez litzakela ori pasako
ura edango bagendu.

8/ Nola an jende asko baigeunden
arrazoi oiek entzuten,
gure iritzia emango al gendun
antxen eskatu ziguten.
Nork bere pentsamentua agertuz
danak asi erantzuten,
onena ura izango zala
garbi erabaki zuten.

ORAINGO GAUZAK

Bertso auek jarri nituen, pixka bat emen gertatzen ari diran gauzetaz oroitzuz.

- 1/ Gai arturikan Ama Euskera
eta izkuntza maitea,
zuk danentzako beti zabalik
biotz onaren atea.
Maitetasuna bear da emen
izango bada pakea,
baiñan beldur naiz ez ote dagon
dana etsaiez betea.

- 2/ Orrenbesteko aurreratzeak
egin ditugun orduan,
gizona gizonaren beldurrez
ez ote dabil munduan?
Ez baitu zuzen inork bizi nai
Jainkoaren aginduan,
argitu ezin geradelako
gaude oraindik linbuan.
- 3/ Linbo ortatik ateratzeko
lege bat dago jarria,
maite ditzagun izkuntza eta
sortu ginduen erria.
Birao zikin bat ere gabea
ain zera gauza garbia,
ea betiko billatzen degun
itzaltzen ez dan argia.
- 4/ Batek gaixotzen dan garaiean
eskatzen du osasuna,
erri maitea, au da zuk ere
lenbailen bear dezuna.
Oinbeste maite baldin badegu
Euskadiren ontasuna,
emen bide bat bakarra dago:
anaien alkartasuna.

- 5/ Erri au zer dan ondo dakien
jakintsu batek esan du:
obe degula argi ibili
izan ez dedin berandu.
Ideak utzi alde batera,
denok Amari lagundu,
gaitza aguro senda liteke
ori egingo bagendu.
- 6/ Batek basua autsiko gendun
eta besteak platera,
ezjakiñaren gorroto txarrak
dijoaz gure kaltera.
Ama gaixoak zer nai lukien
ematen zaio tankera:
bakan gabiltzan seme guztiak
biltzea magal batera.
- 7/ Urte-mordoa izanagatik
Txirrita zana il zala,
oraindik ere gogoan daukat
egiten zigun itzala.
Bere aotikan entzun nuen bein
mutil koskorra nintzala:
politika ta oilloen kota
biak igualak zirala.

ZAKUR BATI

Bertso auek jarri nituen, nere anai baten txakurra gai artuta. Izan ere, ain ona zuen. Batek nai ezik utzia ta artua, lagun batek emanda.

Amaika erbi zar ta basurde ta azari arrapatua. Ogei milla duro eskeiñi ta saldu gabe utzia. Istori aundia zuen zakurra.

Mendian galtzen bazan, igual Isaba'n edo Huesca'n, bi egun baiño len etxean azaltzen zan.

Bein, emen basurdea aurrean artu eta Frantzi'ra joan zan. Etxalar'en pasata, frontierari ere etzion kasorik egin. Bere umea an arrapatu zuten, baiña bera etxera etorri zan. Gero, umea ere ekarri zuten.

- 1/ Txakur bat zuen oso maitea
Lagun izena zuana,
gure etxean azia baiña
txikitan bestek emana.
Il zan ezkeroz amaika aldiz
akordatutzen gerana,
beste bat pozik artuko nuke
ark aiña maite nauana.

- 2/ Eizera joan da nik nai bezela
ez baldin bazan ibiltzen,
jo ere igual egiten gendun,
ura gaixoa sufritzen.
Ez dakiena asi ezker
dakienari agintzen,
ez da izango oso erreza
munduan zuzen bizitzen.

- 3/ Txakurrak asko ikusi ditut
baiñan ez orren azkarrik,
jaio egin zan alakoxea,
etzuen maisu bearrik.
Eiztari danak baiño geiago
zekien berak bakarrik,
lezio ederrak eman zizkigun
baiñan gureztat alperrik.

- 4/ Eizeko lanak egin da gero
etxeratzen giñanean,
ezur kozkor bat eman da antxen
lotzen genduen katean.
Gaba ta egun askatu gabe
txabola sastar batean,
gauzak goatzen zaizkigu baiña
gero, denbora joatean.
- 5/ Txakur azkarren artean beti
ura izaten zan nagusi,
nere begien aurrean ez det
azkarragorik ikusi.
Jotzen bazan e etzanda jarri,
etzan joango igesi,
ain zan umilla, guk ez genduen
alakorikan merezi.
- 6/ Katean antxen pasako zitun
arratsa eta eguna,
alare etzan asarretutzen
artaraiñoxe zan ona.
Bear zanean gutxi maitatu
orain goatzen zaiguna,
artu liteke arek ainbeste
maite ginduen laguna.

7/ Bizi zan arte etzan izandu
bear aiña maitatua,
amaika erbi zar, azeri eta
basurde arrapatua.
Ain zan aparta besteetatik,
berdiñikan gabekua,
askotatik bat berezi eta
sortzen dan oietakua.

8/ Ikusirikan arek eizean
egiten zekien lana,
arriturikan gelditutzen zan
berekin joaten zana.
An inguruko eiztari zar bat
amaika aldiz esana:
gurea zala zakurra baiño
merezi ez genduana.

LEN ETA ORAIN

Bertso auek, mendiak eta emengo garai bateko oitura eta izaera gogoratuz jarriak dira; gaitzat orixe artuta.

- 1/ Industririkan etzan garaian guztiok nekazariak, ogibidea eiza ta arrantza, larrean bei ta ardiak. Soroak laiaz jiratzen ziran, egin arto ta gariak, erderaz ere etzekiten len euskaldun bertsolariak.

- 2/ Zertan gabiltzan ez dakigunoi
barka ezaiguzu, Jauna,
danen Jabeak egin zituen
piztiak eta pertsona.
Berak ematen digu aizea,
bizia ta osasuna,
begiak ere bai ikusteko
munduko edertasuna.
- 3/ Illunak triste jarritzen gaitu,
argiarekin poztuta,
oiek ere gu sortu gindunak
Berak egiñak ditu-ta.
Baiñan askotan ibiltzen gera
badanik ere aztuta,
burua arin daukagunean
munduko gauzak nastuta.
- 4/ Udaberriak zerbait piztu nau,
larri nintzaden neguan,
kirkirrak asi dira egiten
kabi berriak soruan.
Arratsetan lo egiten dute
berena duten txuluan,
argitutzean kantatutzeko
eguzkiaren beruan.

- 5/ Jardiñak bezin politak dira
Euskalerriko mendiak,
or orfeoi bat osatzen dute
kirkirrak eta txoriak.
Alde danetan kantuen otsa,
zer une zoragarriak,
denontzat argi egiten dula
Jaunaren zeru garbiak.
- 6/ Ni ere antxen ibilia naiz
gaztetan garai batean,
mendietako aritz ta pago,
urki ta gaztain artean.
Urte gutxian auek mudantzak
emen gure lur maitean,
batzuentzako onerako ta
askorentzako kaltean.
- 7/ Zerua urdin jarritakoan
eguzkiaren argiak,
soroak lore politez bete
zituen udaberriak,
ta gu begira aspertu ezin
gozatzen geren begiak,
amaika aldiz egonak giñan
aitona zana ta biak.

- 8/ Atzerritarrak agindutzea
emen guretzat kalte da,
negarrak gero alperrik dira,
orain kontuak atera.
Bizirik nai baditugu emen
oiturak eta izkera,
diferentziak utzita danok
bildu gaitezen batera.
- 9/ Oraintxen ia jarri gerade
bata bestian goardian,
beste gauz bat zan bizi giñala
lengo oitura garbian.
Usaia ere ez da lengoa
kalean eta mendian,
ontan bagoaz laister gerade
inpernuaren erdian.

ETZAIGU FALTAKO GERRIK

Bertso auek, zerbaiti jarri bear ta alaxe jarriak dira. Askotan, bertsoak jartzen baiño, gaiak billatzen geiago kostatzen baita.

- 1/ Asko ikusten dira aituta
zituzten pazientziak,
gero itzaltzen lan ematen du
su artutzean sasiak.
Munduan ez lirake egongo
dauzkagun diferentziak,
zentzu pixka bat baleukateke
gizonen kontzientziak.

- 2/ Ederki asko jorratu dute
bakoitzak bere baratza,
baiñan ez izan oiek emanda
jango dezun esperantza.
Len baiño ere aberatsago
egin dute aberatsa,
pobrearentzat laister da emen
berriz e inpernu latza.
- 3/ Zarrantzako errukitsua
ibili zuten mingaiña:
bajuarentzat izango zala
besteak zeukaten aiña.
Aztu egiten ordea azkar
len agindu zuten baiña,
ematekoa datorrenean
artzen diote tamaiña.
- 4/ Gauza guztia gora dijoa
egunetik egunera,
jaten da jazten zenbat bear dan
kontuak ondo atera.
Etxeak berriz igo dituzte
lau milloitik amarrera,
gazte maiteak, etzerate, ez,
sartu mundu ederrera.

- 5/ Oiek gu jarri nai ginduzteke
 europeoen parera,
 baiñan soldaten diferentzia
 utzirik alde batera.
 Asko duenak ondo jango du,
 ematen zaio tankera,
 guretzako zer geldituko dan
 orain kontuak atera.
- 6/ Danok dakigu zer esan zuten
 agindu nai zutenean,
 ta gero aztu zeukaten naia
 gallendu ziradenean.
 Agintariak ez badabiltza
 kristaubide zuzenean,
 erru guztia inozenteak
 pagatzen du azkenean.
- 7/ Gauz ontan danok ditugu kulpak,
 ez beti besteri bota,
 ta nork berea egin ezkerro
 zenbaiti gutxi inporta.
 Betri orrela ibili gabe
 aserretu ta mikoka,
 asi gindezke gauzak zuzentzen
 premi ederra dago-ta.

8/ Emen egintzak bear ditugu,
ez aginduak bakarrik,
gogoan daukat nola batean
idatzi zuen Basarrik.
Egi galantak jarri zituen
baiñan ordea alperrik,
zu pekatari dabillen arte
etzaigu faltako gerrik.

ORIA IBAIARI

Bertso auek jarri nituen bein, irurogei eta zortzi urteko gizon zar batekin itzaldi bat egin eta gero. Berak esan zidanez, amaika angula, izoki ta amorrai arrapatzen zuten Oria ibai ortan, eta bai txanpon ederrik artu ere. Orain, ikusi ta negar-gurea ematen omen dio.

- 1/ Iñoiz begira jartzen bazera
zu Oria'ko ibaira,
esango dezu: «Lengo angula
ta amorraiak nun dira?
Ur garbi artan aiek igari
gu legorretik begira,
orain ikusi utsak malkoak
ekartzen dizkit begira».

- 2/ Gizon zar batek esaten zidan:
«Gaur ez dauka lengo antza,
ibai maite au ain zan garbia
eta arraiz aberatsa.
Orain besterik ez du botatzen
usaia eta kiratsa,
galdu genduen au berriz garbi
ikusteko esperantza.
- 3/ Naiko angula eta izoki,
amorra ta beste danak,
zenbat arroa izango'ituzu
jendearentzat emanak.
Nola ez degu izango pena
artaz oroitzen geranak,
errio ortan arrapatuta
saltzen ibili giñanak?
- 4/ Usurbil'dikan bera or daude
Agiñaga ta Orio,
amaika txanpon eder artuak
ibai oi dala medio.
Gaur ere ez du arrai pin orrek
saltzeko gutxi balio,
ta guk ezin jan erostunari
garesti jotzen baidio.

- 5/ Agiñaga'ko barrio ori
oriotarren mugan da,
gu ere antxen ibiltzen giñan
anguletara juanda.
Errio ori aberatsa zan
asko ematen zuan-da,
amaika aldiz etorri giñan
debalde naikoa janda.
- 6/ Itxasotikan etortzen ziran
marearekin batera,
aitonak laister emango zion
noiz izango zan tankera.
Obe genikek gaur e balego
garai artako aukera,
orain alperrik joango gera
arrapatu ta jatera.
- 7/ Ibaiak ez du gaixoak kulpik,
eskerrak merezi ditu,
garbi utzitzen zioten arte
etzuen gutxi partitu.
Benenez dana erre zuten da
arrairik ez da gelditu,
gu zurekin len oitutakoak
orain nola ez sufritu?

8/ Ez baitute gaur askok pentsatzen
guk pasatzen degun miñik,
gaur ikusi ta errio ori
lenago zer zan jakiñik.
Oraindik ere jarri ezker
emen danok bat egiñik,
ez litzake, ez, or itsatsiko
belar gaiztoaren zaiñik».

UTZI-ALDI BAT EGIN ONDOREN

Bertso auek, berriz, aspaldian ixil samar egonda zerbait jarri bear, ta alaxe jarriak dira.

- 1/ Utzi-aldi bat eginda berriz
astera noa idazten,
bertso-zaleak diran anaiak
pixka bat poztu ditezen.
Bolara ontan saiatu gera
erria gobernatutzen,
gu nastu-azi gaituzten oiek
ez dira gutxi poztutzen.

- 2/ Gogoan daukat zer esan zidan
lagun aundi baten amak:
«Inbiria ta gorroto txarrak
emango dizkigu lanak.
Nork beren faltik ikusten ez ta
besterenak berriz danak,
erri au ez du asko altxako
ori egiten duanak».
- 3/ Danon Jabeak ortxen daukazki
idatzi eta jarriak,
gizonarentzat bearrezkoak
diraden bide garbiak.
Maitasuna ta errespetua
galtzen baditu erriak,
askotan malkoz busti bearrak
izango ditu begiak.
- 4/ Ikusirikan estu ta larri
dabilen lagun urkoa,
zenbaitek ez du alare ematen
izanagatik naikoa.
Bear bezela egin dezagun
Jaunak agindutakoa,
ondo oroitu gero lur ontan
etzerala betikoa.

- 5/ Badakizute gizona dala
danon Jabeak egiña,
gu salbatzeagatik il zanak
ipiñi zigun dotriña.
Ondo betetzen saia gaitezen,
egin zagun alegiña,
gero garaia datorrenean
jaso dezagun ordaiña.
- 6/ Sermoi ederrik entzuten degu
denak pakearen eske,
zuzen egiten dituzte gauzak,
gizarajoak bai uste.
Ain etorkizun illunarekin
or daude ainbeste gazte,
agintariak, etzazutela
iñor estutu oinbeste.
- 7/ Emen gaiztoa izandakorik
ez du artuko zeruak,
Jaunak badaki zein diran emen
umillak eta arruak.
Ura ez dute engañatuko
emengo fariseuak,
bidean dira geren saria
jasoko degun orduak.

JULIAN GAYARRE'RI

Aurreko egun batez, Lasarte'ko zarren ibillaldi bat izan genduen or Ronkal eta Isaba aldera, eta ikusi genduen Gayarre zanaren iduri eder bat; eta uraxe gogoan artu ta alaxe jarriak dira bertso auek.

- 1/ Gayarre sortutako errian
izandua naiz lenguan,
bere iduri eder bat ere
antxen ikusi genduan. .
Iru aingeru dauzka zaindari,
gorputza kaja barruan,
betiko atsedena artutzen
anai maiteen onduan.

- 2/ Ronkalen jaio zanak artzantza
izango zuen aurrena,
geroxeago errerotza ta
kantore berriz urrena.
Garai danetan ezagutu dan
eztarririkan onena
esaten dute izandu zala
Gayarre'k izan zuena.
- 3/ Madrid'en boza obetu nairik
ibili zuten lenbizi,
diruan falta zegoela ta
bartzarrera zuten utzi.
Baiñan Iruña'n zeukan maisuak
alare etzuen etsi,
ta ari esker gero izan zan
mundu guziko nagusi.
- 4/ Zer egiten zun ondo zekien
laguntza egin zizunak,
arriturikan uzten baizuen
zenduen maisutasunak.
Urrutitikan entzuten ziran
irrintzien oiartzunak,
berriz e berak kendu zizkizun
lenago eman zizkizunak.

- 5/ Elur azpian egoten dana
luzaroetan neguan,
udaran aize-berritutzen zan
mendian pago onduan.
Len esan dedan aingeru ori
antxen jaioa genduan,
zenbat sari ta txaloren jabe
izan ote zan munduan?
- 6/ Mendia zuen bere maitea
antxen azia zalako,
aritz, pago ta piñu artean
irrintzika eta salto.
Etzuen gozotasun oberik
gero geiago pasako,
antxen sortu zan mirari ori
Norbaitek nai zuelako.
- 7/ Ama onaren bular gozoa
indarra eman zizuna,
azkar irrintzi bat egin zuen,
mendi arek erantzuna.
Seme argi bat zenduen, Ronkal,
fama zabaldu dizuna,
urrutietan ere geroztik
zerade oso entzuna.

8/ Mirari batez ama onaren
sabeletikan sortuak,
aingeru oiek izaten dira
Jaunak berezitakuak,
mundu guzian izan ditezen
gero ondo txalotuak;
Gayarre asko bear giñuzke
ura zan bezelakuak.

BURUTAZIOAK

Bertso auek ere, gai aundirik biltzen ez eta zerbait jarri nai eta alaxe jarritakoak dira.

1/ Ale batzuek jarri nai ditut
ametsa gogoratuta,
zerua goian da lurra bean,
gu erdi ontan burruka.
Saia gaitezen zuzen ibiltzen
bizi bakarra degu-ta,
bide motzean joaten dira
gorrotoa ta arrunka.

- 2/ Jaunak guretzat egin zituen
iturri eta ibaiak,
arbolez betetako mendiak,
lan egiteko zelaiak.
Ara zer gauzak sortu zituen
batzuen jabetu-naiak,
geroztik alkar iltzen burruka
emen dabilta anaiak.
- 3/ Ura ta legor mundu au dana
Jaunak guretzat egiña,
seme zabarrak gu izatea
aitak izango du miña.
Ark bazekien errez emango
zuela danontzat diña,
erlea saiatzen dan bezela
saiatu izan bagiña.
- 4/ Erleak daukan zuzentasunik
gizonak ez du berdindu,
aik alperra il egiten dute
ta guri berriz agindu.
Erri maite au ez ote zaigu
orretxengatik samindu?
Guztiok berdin izan dezagun
Jaunak mundua egin du.

- 5/ Batzuentzako ase betea
eta besteak negarrez,
agintariak, ori zuzentzen
saia zaitezte meserez.
Danok dakigu nai izanda're
eztala izango errez,
baiñan erriak oi eskatzen du,
beste gauzarik ezer ez.
- 6/ Berak nai zuten dana egiñez
etziran gutxi gizendu,
ase eziñak azkenerako
gizona berak galtzen du.
Egi aundi bat bada munduan,
ura dotriñak jartzen du:
aundiak oker baldin badabiltz
txikiak nola zuzendu?
- 7/ Dana garbitik egiten zail da,
ain dago mundu ustela,
gauzen jabeak ziranentzako
zigorra eta kartzela.
Lapurrak gero elizan zintzo
onak balira bezela,
baiñan ez pentsa orrekin Jauna
engañatuko dutela.

LEXOTI BERTSOLARIARI

Gure lagun zar bat degun Lexoti gai artuta, eta egin bear dioten omenaldia, bere artzantzako eta dituen esan xebreak gogoratuz jarritako ale batzuk dira auek. Izan ere, gure Lexoti ain alai ibiltzen baita mendian bere aker aundiari eta auntzai kontu egiñez eta bere bertso xebreak kantatuz.

- 1/ Zuk, Jose Luis, bertsolaritza
landu zenduen lenbizi,
erretiroa artu ta gero
artzantzan ziñaden asi.
Talde ederra osatu're bai
bere aker eta guzi,
orrek ez al du artzai onaren
sari eder bat merezi?

- 2/ Lexoti'k bere maiteak ditu
lagunak eta bertsoa,
beti izan da bromazalea
eta biotzez gozoa.
San Antonioi errezatutzen
pasatzen egun osoa,
andik urruti joan ditezen
azeria ta otsoa.
- 3/ Txakur bat badu azeri zarrak
arrapatzen dizkiona,
berak agindutako guztia
zintzo egiten diona,
San Antoniok errezoaren
sari bialdu ziona,
izan zezala mendirako ta
bideko bere laguna.
- 4/ Artzaiak zintzo egiten ditu
egunero errezoak,
danon Jabeak izango ditu
gogoan ondo jasoak.
Arbol gaiñetik kukuak kuku,
arek azpitik bertsoak,
Lexoti'k antxe pasatzen ditu
ordu ta egun gozoak.

- 5/ Mendiko aize sanoak eta
eguzkiaren argiak
alaitzen ditu artzaia eta
bere auntz eta ardiak.
Arkaitz tarteko iturritxoak
noizbait Norbaitek jarriak,
andik edanda ase zitezen
beartsuen egarriak.
- 6/ Danok jokatu izan bagendu,
Lexoti, zure moduan,
gaur dagon aiña gerra ta inbiri
etzan egongo munduan.
Zure nekeak danon Jabeak
izango ditu goguan,
egiten zaizun omenaldi au
ondo merezi zenduan.
- 7/ Askotaz garai sanoagoak
izandu ziran lenguak,
aundinaiari josita gabiltz
inbiriakin galduak.
Beneno txarrak nola baitauden
baztarretan zabalduak,
obe genduke Lexoti asko
baleuzka gaurko munduak.

8/ Dituen kezka kontatzen jardun
zitzaidan Lexoti zarra,
munduak daukan etorkizuna
ez du ikusten edarra:
«Ez baididate errezatuko
aitagure bat bakarra,
eta ditudan diru guziak
besteri utzi biarra».

ERNANI ETA EUSKERA

Bertso auek jarri nituen, len nola izaten giñan gogoratuta: orduko sagardotegi eta umorea, bertso zar eta berriak eta alkartasuna; eta gaurko diferentzia ikusita. Beste mundu bat baizan. Gaur kanpotarrez beteta dago dana, eta lengo sanidade ura falta da.

- 1/ Iru edo lau bertso
bear dizkat jarri,
bizia zor diodan
erri polit orri.
Iñork ez du joan nai,
pillaka etorri,
or dago ispillua
zer degun Ernani.

- 2/ Nere erri maitea,
etzaitut aztutzen,
umetako garaia
zait gogoratutzen.
Arrats osoak igual
ditut pasatutzen,
oiera joan eta
zutaz pentsatuzen.
- 3/ Askotan egiten det
ixilik negarra,
ain baizaitut maitea,
jaioterri zarra.
Izango degu seme
leialen bearra,
ez dezatela egin
gugatikan parra.
- 4/ Bat badegu balio
duena urria,
alkate izandua
Juan Joxe Uria.
Ura saiatutzen da
ematen beria,
alako asko bear
ditugu ordia.

- 5/ Saia gaitezen danok
euskera il ez dedin,
seme danen laguntza
litzake atsegin.
Ez jakiteak ditu
ainbeste utsegin:
euskaldunak izan da
erderaz itzegin.
- 6/ Ola ikusten ditut
beatzitik zazpi,
beren umetxoairi
erakusten gaizki.
Esnatzeko ordua
izango da noski,
ez da «euskalduna naiz»
esatea aski.
- 7/ Orrela guk euskera
nola aberastu?
Damakigun jokerak
zentzurikan eztu.
Emen au pasa baietz
egin leike apostu:
kanpokuak ikasi
ta etxekoai aztu.

8/ Izkuntza guztietan
lenengo lorea
dala esaten dute
munduan gurea.
Garbia ta apala,
biraorik gabea,
gordetzen dakiena
Jaunaren legea.

9/ Izkuntza maite duten
zenbait seme abil,
bere etsaien kontra
borrokan badabil.
Asi zaigu piztutzen,
egondu zan umil,
lagun zaiguzu, Jauna,
ez dezatela il.

GURASO ZARRAK

Bertso auek jarri nituen, guraso zarrak guri egin zizkiguten laguntzak eta gugatik artu zituzten nekeak oroituz, au baiño geiago ere merezi zutela eta.

- 1/ Guraso zarrak nai ditut jaso osatutzen badet itzik, baiñan ez degu egiten ala ez degulako biotzik. Gugatik dana eman zutenak baztartu eta nai ezik, inpernuan e ez da egongogu ainbesteko Judasik.

- 2/ Guraso batek bere aurtxoa
maitatzen du biotzetik,
duen guztia emango dio
maitasunez jaiotzetik.
Ta gero danak desprezioa,
ospitalera etxetik,
oroitu gabe guretzat ere
badatorrela atzetik.
- 3/ Lenbizi seme-alabak azi
ta gero illobatxoak,
ori egiten ondo zekiten
orduak amonatuak.
Lujotan gutxi gastatu zuten
gure lengo gurasoak,
erlea baiño zintzoagoak
nola baiziran gaixoak.
- 4/ Amonak zenbat lagundu zizun
akordatutzen al zera?
Zuri onena ematearren
faltan geldituaz bera.
Olaxen azi zinduen arek
aingeru baten antzera,
erruki gabe zuk baztarrera
utzi dezuna galtzera.

- 5/ Tristura latza artzen du batek
gauza auek ikusita,
maitasuna ta fedea gabiltz
alde batera utzita.
Munduan bizi geradelako
aundinaiaari josita,
bide okerrak artu ditugu,
ez amak erakutsita.
- 6/ Jaiotzez aulak eta makalak
guztiok izaten gera,
ta gurasoen laguntza bear
irtengo bada aurrera.
Arrigarria degu benetan
geroko gure jarrera:
geiena maite bear deguna
uzten degu baztarrera.
- 7/ An izango'ira aita ta ama
ta azi zindun amona,
emen utziko ditugu danak
diruak eta laguna.
Bukatuko da mundu triste au,
etorriko da eguna,
irabazia degun saria
jaso bearko deguna.

8/ Guraso zarrak erakutsiak
errezoa ta euskera,
ez dakit nola zabartu geran
ain baztarrera uztera.
Jaunak gu ere baztartu gabe
guk egin degun antzera,
lagun zaiogun bizi dedilla
aitonak zuten izkera.

BASERRITAR BATI ENTZUN ONDOREN

Orain berriro baserritar bat oso asarre sumatu ta alaxe jarriak dira bertso-ale auek. Izan ere, ardi-esnea erdira bajatu diotela, eta pentsua egunetik egunera gora dijoala, eta ardiak eta danak utzi bearko dituela zion, orrela etzitekeala jarraitu ta.

- 1/ Nekazaritzak emen urterik onenak izan zituan, besterentzako ia erdia nola egin bear baituan. Norbaitek sartu-azi ginduen noizbait Europa Batuan, gu geran baiño pizkorragoak ibili ziran tratuan.

- 2/ Diferentziak aundiak daude
ta ez da faltako miñik,
emen batzuek jarriko dira
egin da bizi eziñik.
Ez baita iñor lagun urkoa
maitatutzen degun piñik,
dirua jarri da Jaungoiko ta
ez daukagu zer egiñik.
- 3/ Obe dala-ta sartu ginduzten
gu ere Europa Batuan,
itz eder asko baiñan egintzak
falta zaizkigun lekuan.
Larri zebillen nekazaria
ez da jarriko altuan,
denbora izango da testigu
zer ondorenak dituan.
- 4/ Europatarrak etxe aldera
egiten dute tratuan,
eta jakiña aulenak paga
bear du orrelakuan.
Besterengatik gutxi ajola
berea egindakuan,
emen berriz e pagatuko du
len zegoenak bajuan.

- 5/ Gu berriz oso pobreak izan
beste batzuen onduan,
kanpoko interesaren morroi
guk jarri bear orduan.
Zakur aundiak agintzen dute
Europa eta munduan,
nai dana berak egiten dute
eta nai duten moduan.
- 6/ Millaka asko munduan iltzen
dira urtero goseak,
armetan berriz gastatzen dira
millaka milloi paseak.
Aundiak beti nai dana egin,
or konpon bitez besteak,
oiek ez ditu asko estutzen
beartsuaren eskeak.
- 7/ Lege ederrak munduarentzat
or daude Jaunak jarriak,
baiñan gizonak konforme ez ta
egin zituen berriak.
Orrekin ez du bentaja asko
langillea ta erriak,
ikasi dute mundu zar oni
nola artu negurriak.

- 8/ Lege gogorak dauzka munduak
gizonarentzat jarriak,
kejoso dira arrantzaleak
ta berdin nekazariak.
Gora egingo du berriz ere
bear degun janariak,
ta azkenean kastigu dana
pagatuko du erriak.
- 9/ Ase-eziña sortu da emen
ta kontzientzia galdu,
mundua ondo jarriko bada
orrek bukatu bear du.
Suiza'n dauden gure milloiak
berriz onera bialdu,
lapur batzuek ez dezatela
pobreen ogia saldu.

TREN TXIKIEN ERIOTZA

Bertso auek, oraingo Urola'ko trena eta len kendu zituztenak gogoan artuta jarriak dira. Izan ere, ainbeste aldiz ibiliak giñan gu aien barrenean, batzuetan Elizondo aldera eta besteetan Lekunberri aldera. Baita Urola'koan ere askotan. Gure garaiak ez baizan orain aiña kotxe.

- 1/ Gizon danak izaten
ditugu ideak,
legea dan bezela
bakoitzak bereak.
Nik ere azaldu nai
nituzke nereak,
moztu dituztelako
gure trenbideak.

- 2/ Irun da Elizondo
ibiltzen zan trena,
orain urte batzuek
kendu zigutena.
Amaika kontrabando
ibili zuena,
txerri plakoa prankok
izan zuen pena.
- 3/ Joan da etorri bertan
egiten genduan,
Bidasoa-eskiñan,
Frantzia'ko muan.
Nunai geldituko zan
nai zuen orduan,
makiña bat portuges
ibili zenduan.
- 4/ Beste bat ere bazan
Oloki'ko trena,
amaika ikatz ta egur
ibili zuena.
Donostia'n irten da
Iruña'n azkena,
Lekunberri aldean
gogoan dutena.

5/ Orain Urola'koa
dijoaz kentzera,
lenago kendutako
bi oien antzera.
Ta, langille gaixoak,
zoazte etxera!
Au dek alibioa
pobreak zartzera!

6/ Oso zartu geranak
laister gera ilko,
ta gazteentzat lanik
ez ditek jarriko.
Estutu bearko da
amaika gerriko,
emen gauza onikan
ez dek etorriko.

7/ Pobreari kentzea
lana ta jornala,
ori da egitea
pekatu mortala.
Pentsa gu ere tripa
degunak gerala,
ta nunbaitetik orrek
bearko duala.

- 8/ Justu zebillenari
orain dana kendu,
gaurko zenbait nagusik
ala egiten du.
Larri danak orduan
txarrera jotzen du,
obe dezute min au
lenbailen zuzendu.
- 9/ Ez da entzuten lanik
eza beste gauzik,
iru milloitik gora
dezente ziaztik.
Eta onek ez dauka
zuzentzeko trazik,
urak joan da gero
ez da bear presik.

ALKARTU BEARRA

Bertso auek jarri nituen, bein Martzel bertsolariak idatzi zuena letu *Aranzazu*'ko egutegi-orri batetik, egi aundiak esaten zituela, eta uraxe go-goan artuta.

- 1/ Edadez zerbait aurreratuak ematen dio tankera, etsaia gogor saiatzen dala galdu naiean euskera. Gaitz au aguro senda liteke bildu ezkerro batera, apartatuta ibillitzea geron buruen kalte da.

- 2/ Garai batean bat izanduak
gure zazpi probintziak,
Otaño zanak zion bezela
oial batetik jantziak.
Azpi-janean ari zaizkigu
ta ia gaude etsiak,
oiek ez ditu asko kupitzen
mendekoaren antsiak.
- 3/ Amaika egi esanda il zan
Pedro Maria Otaño,
askoz geiago zekielako
iritxi zan ortaraiño.
Etorri gera emen anaiak
alkar ondatutzeraiño,
apartatutzen errezago da
batera bildutzen baiño.
- 4/ Euskaldunentzat gauza txarra da
ibiltzea alkar galtzen,
gure etsaiak au ikusita
ez dute gutxi gozaten.
Apartatuta ibilli gabe
saia gaitezen alkartzen,
oiek ez dute ezer emango
gu ez bagera saiatzen.

- 5/ Beti zai daude arrapatzeko
gure debilidadak,
baiñan baditu gure erriak
balio aundiko semeak,
or España'n dauden jakintsu
oien inbiri gabeak;
orregatik bat egin dezagun,
bestela egin du gureak.
- 6/ Aiek ez dute ezer emango,
beti zai daude artzeko,
ta bertan ere billatu leizke
amaika aien antzeko.
Pentsatu ondo badegula ordu
anaiak alkartutzeko,
bestela gerok aski gerade
geron erria galtzeko.
- 7/ Geren lurrean guk nai badegu
itxura-antzean bizi,
pentsa dezagun danen gaiñetik
gurea dala lenbizi.
Bildu gaitezen danok batera
ta geiago ez berezi,
bestela morroi izango gera
eta besteak nagusi.

8/ Emen eskatzen degun guztia
badakigu zaila dana,
baiñan pentsatu bear genduke
ia garaia badana.
Lutoz jantzita ibilli gabe
oinbeste aita ta ama,
tiroka ez degu ezer egingo,
alkartuta berriz dana.

LENGO AITONAK

Ernani'n badegu baillara bat Portu deitzen dioguna, eta antxe biltzen giñan lengo aitona aiekin. Izan ere, ain bertso-zaleak ziran, eta gaiñera berak ere bastante egiten zutenak. Txirrita zanarekin San Juan eskean urtero ibiltzen ziranak. Bromoso utsak eta gizon galantak. Batez beste, euna kilotik gorakoak, eta aundi ainbeste ontzi. Danak lege zarreko aitona, gaurko drogazaleen antzikgabeak. Aiek aitona, aiek! Gaur falta dituguna.

Grazianok Otaño ere ezagutu zuen. Baita bertan ikusi ere, Ernani'ko Karabel'go tabernan gure aitonaekin. Eta Grazianori aditu nion, bein Amerika'tik etorri ta nola aritu ziran bertan. Orain dana ez naiz gogoratzen. Baiñan Otaño'k, saioa egin da, azkeneko bertsoa onela kantatu omen zuen:

Errera'ko ondoan
antxe dago Pasai,
aurrak eta emaztea
an daduzkat nik zai,
beste egun batian
kantako deu lasai.

Ori kantatu ta partitu omen zan.

* * *

1/ Lengoan egon nintzan
Portu'ra begira,
gaztetan ibillitzen
giñaden tokira,
galdetuaz: «Orduko
aitonak nun dira?»
Joan ziran emendikan
oso urrutira.

2/ Graziano zarra ta
Joan Jose Andola
goratuko nituzke
banekike nola.
Iduritzen zait beren
ondoan nagola,
ezin baititut aztu
nik aiek iñola.

- 3/ Bat izaten zan beti
kuadrillako buru,
an alkartuko ziran
lau aiton inguru.
Aiekin alkartzean
bertsoak seguru,
Makala aterea
makiña bat orru.
- 4/ Jerolimo *Makala*
zalarik burua,
ura zan pakea ta
ura zan zerua.
Gaur ere artu leike
alako girua,
bañan mudatu zaigu
ederki mundua.
- 5/ *Maldaburu* ere etzan
izan lagun txarra,
gaur badago alako
batzuen bearra.
Bertsoa ta txistea,
broma eta parra,
ura zan Euskadi'ko
lengo lege zarra.

- 6/ Ia etxero bazan
sagardotegia,
bakallo errea ta
etxeko ogia.
Berriz noiz ezagutu
ain mundu garbia?
Parra egiten ere
aztu zaigu ia.
- 7/ Ernani'ko Portua'n
Sanghai'ko taberna,
ta nagusia Jose
izena zuena.
Antxen bilduko ziran
aiton jende dena,
erriak eman zuen
jenderik onena.
- 8/ Arratsaldea pasa
nola edo ala,
etzuten osatutzen
laukote makala.
Nik uste det zeruan
sartuko zirala,
ta an ere kantari
ariko dirala.

TXAKUR BATI

Ni jaio nintzan baserritik bertan, badago beste etxe bat, Lastaola deitzen zaiona. An bazan gizon aundi bat, Joan Martin deitzen geniona, Kuba'ko gerran ibilia, eta aretxek ekarria zakur ori. Baiñan bai aundia eta pizkorra. An arrimatzen ziran txakur koskorrak, arek astintzen zituen ederki. Baita borroka asi ta ito ere. Aren ortzetatik iges egiten zuenik, etzan geiago arrimatzen, da ala obe. Uraxe gogoratuta jarriak dira bertso auek.

- 1/ Txakur bat e bazuen,
izena *Il-arte*,
zenbat borrokalditan
artu zuen parte?
Arekin asten zanak
beretzako kalte,
obe zuen ibili
al bazan aparte.

- 2/ Oso ona izandu
zuten etxerako,
etzan ibiltzen nagu-
sian kalterako.
Arek eltzen ziona
etzan aterako,
eskarmentatuko zan
beste baterako.
- 3/ Zaldi bat aiña bazan
kateari tiran,
etzan giro izaten
aren etxe-jiran.
Arrimatzen zanari
ark kozka segiran,
ijitoak e larri
ibiltzen ziran.
- 4/ Arek lapur koskorak
zitun gorrotuan,
nundik nora zebiltzan
uraxe kontuan.
Arrapatu ezkerro
gustoko lekuan,
bere partetik danak
itoko zituan.

- 5/ Zartu ta bukatu zan
Il-arte gaixua,
gorputzez aundia zan
eta indartsua.
Arrigarria berriz
beraren zentzua,
zakutik jaten baizun
idien pentsua.
- 6/ Txakurra nagusiak
maite izan zuan,
etzan aurrera joango
jarritako muan.
Baiñan agintzen zuen
bere terrenuan,
obe zan guk e ala
egin bagenduan.
- 7/ Baserri aundi artan,
illunduta ere,
ateak zabalikan
egoten dirade.
Ez da iñor sartuko
ark sentitu gabe,
erne ibili leike,
beretzako obe.

- 8/ Egunez lotuta ta
libre arratsetan,
erne ibiliko da
etxeko mugetan.
Nagusiak alaxe
oitua gaztetan,
ez dakit nola etzun
ikasi izketan.
- 9/ Aundia ta pizkorra,
asko ikasia,
aretxek egiten zun
ango justizia.
Aren gain egoten zan
baserri guzia,
lasai oieratzen zan
bere nagusia.
- 10/ Ari bai etziola
iñork egin parrik,
eskeiñitzen zioten
txorizo ederrik.
Etzuen jango gerta
etzedin okerrik,
jan egingo zun baiña
etxean bakarrik.

11/ Nagusian esana
egingo zun zuzen,
baiñan konpiantzikan
etzuen artutzen.
Gero asi zanean
piska bat zartutzen,
batekin besterikan
etzan piatutzen.

12/ Arekin guk pasatzen
genitun larriak,
etzuen ikaratzen
jota're arriak.
Orra amabi bertso
oraingo berriak,
txakur bati Ernani
Txikiak jarriak.

ISRAEL TA ARABEAK

Bertso auk jarri nituen lengo batean, telebisioari begira nengoela, an ikusi nituen salbajadak ikusita. Kristauaren izena daramagun animalia asko gaude oraindik.

- 1/ Lengoan ikusi det
telebisioan
Israel ez dagola
bere juizioan,
orain egin berria
duten azioan,
arabeak bizitzen
diran nazioan.

- 2/ Au ere ikusi da
aurtengo urtean,
Israel eta arabe
orien artean.
Ura aien lurra da
ta utzi pakean,
berak gaitzik egiten
ez duten artean.
- 3/ An bizi diran seme
urrikalgarriak,
lege oiek ez dira
Jainkoak jarriak.
Besoak txikitutzen
jasota arriak,
biotzikan ez duten
borrero berriak.
- 4/ Aien lurrak ziranak
berentzako artu,
gero ume gaixoen
besoak apurtu.
Ori ezin lezake
munduak barkatu,
bestela ez da emen
justizirik sortu.

- 5/ Israel orrek danak
beretzat nai ditu,
nunbait bere lurretan
ezin da kabitu.
Etzazula odolez
lurrikan gorritu.
obe dezu etxeko
mugetan gelditu.
- 6/ Armaren mende jarri
naiean auzia,
judioa, etziñan
oraintxen asia.
Baiñan bukatu leike
zure pantasia,
beti ez dezu egingo
nai dezun guzia.
- 7/ Ikusteko jaioak
dirade bereak,
miru gaiztoen mende
dauden arabeak.
Ez baditu zuzentzen
guztion Jabeak,
oiek ez dira gero
izango obeak.

- 8/ Israel'en jokerak
ez gaitu poztutzen,
oiek ez dute iñor
errespetatutzen.
Beti sesio billa
bartzarrak nastutzen,
oiek Jesukristo're
olaxen il zuten.
- 9/ Mundua egin zuenak
jarri zun legea,
gaur dagoena baiña
askotaz ohea:
errespetatutzeko
bakoitzak berea;
ala bear litzake,
ez egin ordea.

KANADA'KO BASO-MUTIL BATEK ESANAK

Bertso auek, urte askoan Kanada'n basoan lana egin duen bati jarriak dira, bere naia betetzeko. An otz gogorak pasa omen zituen, eta beroak ere bai. Baiña ez omen dauka damurik. An andre aberatsa artu baizuen. Eta berak aurreratuta zeukana-rekin, orain bapo bizi da, bere emaztea ta bi seme-txoren ondoan, nai duenean etorri ta joan egiñez.

- 1/ Kanada'n bizitu dan batekin
egin ditut itz batzuak,
ogei urtean mendian lana
egin du gizarajuak.
Ikustekoak omen dirade
ango arbol da basuak,
ta esan zidan: «Arixere ere
jarri beaizkak bertsuak».

- 2/ Arrigarriak omen dirade
arek dituen mendiak,
eta arbolak sinistu ezin
litezken bezin garbiak.
Berez sortu ta azitakoak,
ez aldatuta jarriak,
orregatikan ditu Kanada'k
aberastasun aundiak.
- 3/ Esan zizkidan izen-mordo bat
baiñan aztuta dauzkat nik,
emen arbolik ez omen dago
ain luze eta zuzenik.
Zer balioak dauzkan Kanada'k
egur utsetan bakarrik,
ez omen dago negurtzerikan
ango aberastasunik.
- 4/ Joan baiño len emen oitua
nola baizegon basuan,
gero an ere lengo lan-klase
berean jarraitu zuan.
Urte askoan besteren mende
ogia jango bazuan,
bi klasetara oituta dago:
gazian eta gozuan.

- 5/ «Kanada'gatik ez dakat ezer
gaizki esaterikan nik,
sasoi nuela joan nintzan da
ez daukat batere penik.
Lana egiten duenarentzat
an ez da faltatzen janik,
baiñan alperrak ez pentsa an e
ondo ibiltzen diranik».
- 6/ Beste gauza bat arritzekoa
angoazienda-pillak,
artzai zintzoak nai dituzte an:
Euskalerriko mutillak.
Txanpon batzuek egin da gero
baldin badira abillak,
andretarako billa litezke
diru duten neskatillak.
- 7/ Paraje ura aberatsa da,
ango soro ta basuak!
Nunai ikusten omen dituzte
basurde eta otsuak.
Egunez kendu ta arratsetan
berriro jarri lazuak,
ta arrapatu ere egiten
omen zituzten batzuak.

8/ «Basauntzak berriz ikusten ziran
konta ezin leizken diña,
eizetik errez arrapatzen zan
urte guziko zeziña.
An eskasikan etzan izaten,
beti nai genduen aiña,
konpuestorik gabe azia,
mendiko janari piña».

9/ Len brusarekin ibiltzen zanak
gaur mudatu du jazkera,
orain mundua ikusten dabil
alde batetik bestera.
Udaran onuntz etorritzen da,
neguan aruntz osterera,
inglesez ere ikasi du ta
etzaio aztu euskera.

EMENGO EGOERA

Bertso-ale auk, zerbait jarri bear da alaxe jarriak dira, emengo egoera pixka bat ikusita.

- 1/ Maisu aundi bat izandu nuen
lendabiziko gidari,
arixe esker jarraitu diot
egiten deten lanari.
Zor au pagatu naia badaukat
merezia duenari,
nere begiak lenengo argia
ikusit zuten lurrari.

- 2/ Lengo batean esan zizkidan
urte asko dituenak,
nola ikusi dituen ia
munduko baztar geienak.
Beti onera etorri naian
emengoak geradenak,
baiñan emendik ez du joan nai
kanpotikan datorrenak.
- 3/ Emen dauzkagun kanpotar oiek
ezin gaituzte ikusi,
ta indioak bezelaxe nai
gaituzte bialdu igesi.
Baiñan pentsatu bear luteke
gu geradela lenbizi,
ta orregatik nai degula izan
geren lurreko nagusi.
- 4/ Ondo dakite gu geradela
emen bertako arraza,
baiñan arpegi beti ematen
ez daukagu lan erraza.
Gaur ere gogor zanpatzen dute,
lengoak paseak pasa,
ito naiean dabilta baiñan
artuko degu arnasa.

- 5/ Ardi-larrua jantzita dabil
ito nai gaitun otsua,
gaiñera desapio egiñez
laister degula plazua.
Zergatikan il nai zaituzte zu,
gure euskera gaixua?
Zeruan dago zuri bizia
gordeko dizun Maisua.
- 6/ Pake-zalea ez da ibiltzen
iñori ematen gerrik,
amaika odol lenago ere
ixuri zuen Euskadi'k.
Euskera galdu nai zuten baiñan
ordea alper-alperrik,
etsaiak ez du menderatuko
Ama onaren indarrik.
- 7/ Aspalditikan emanda geunden
zer etorriko zan traza,
oitura zarrak beti gordetzen
ez da izango erraza.
Baiñan guk zintzo gorde ditzagun
degun artean arnasa,
etxe askotan sartu da emen
kanpotar oien arraza.

8/ Gu baiño zuzenagoak ziran
lenagoko gurasuak,
otorduan da oerakoan
amonaren errezuak.
Atzeratuak omen giñan len,
gaur daude aurreratuak,
leku onera joan zaizkigu
gure oitura zintzuak.

ROBOTAK

- 1/ Robotak dira gizonen lanak
gaur egiten dituztenak,
ta gizon asko lanikan gabe
or uzten dizkigutenak.
Oso azkarrak izango ziran
oiek sortu zituztenak,
berekin datoz pozak ondoren
ekartzen dituen penak.

- 2/ Gizona asko argitu dala
mundua aurreratutzen,
zenbat bentaja dituen arek
jarri zaitez pentsatutzen.
Lasaitasunik ez du ekarri,
dana dijoa estutzen,
ta erri baten etorkizuna
ez da orrekin poztutzen.

- 3/ Gaurko munduan bearrezkoa
omen da makinaria,
gaur orren kontra ez gaude iñor,
aitortzen degu egia.
Baiñan robotak jaten badute
langillearen ogia,
mundu triste au ikusitzeko
dago ixtillu gorria.
- 4/ Aurki gizonik ez da bearko
mundu ontan lanerako,
sortu dedilla aurrerapena
baiñan danen onerako.
Asko duenak egiten badu
berriz ere etxerako,
makina ederrak izan litezke
gizonaren kalterako.
- 5/ Dana batzuek jan bearrean
igarrak eta ezeak,
ez ote dabiltz gauza askotan
negurritikan paseak?
Naiz ondo jakin nola milloiak
iltzen dituen goseak,
alaxen ere errukirikan
ez duten kristau-klaseak.

- 6/ Gaurko gizona aurreratatu da,
eskola-faltik ez dago,
ta zenbat eta geiago jakin
orduan da estuago.
Eskolik gabe bizitu giñan
orain baiño lasaiago,
aurreratzea au baldin bada
obeto geunden lenago.
- 7/ Zientziaren aurrerapena
negurritikan pasea,
len bezelaxe dago munduan
gizonen ezin ase.
Batzuentzako dana bilduta
askorentzako gosea,
aurreratze au ez da izandu
guk bear degun klasea.
- 8/ Politikoak ere or dabiltz
asarre alkarren kontra,
ta nork berea egindakoan
besteak gutxi inporta.
Bizimodua txartutzen bada
aurrera geiegi jota,
orduan alper-alperrik dira
eskola eta robotak.

KATU ZAR BATI

Bertso auek etxean izan genduen katu zar bati jarriak dira. Izan ere, oiek eta geiago merezi zituen animalia zan. Amaika xagu eta arratoi arrapatua zan, baiñan bera ere arrapatu zuen norbaitek.

- 1/ Gure etxean amaika
aldiz aitatua,
ezagututzen degu
ura faltatua.
Aitonak izan zuen
oso maitatua,
satorrak arrapatzen
zekien katuā.

- 2/ Ark bazekien nola
ibili basuan,
illundu ordurako
an nunbait auzuan.
Katu emerren batek
engañatu zuan,
edo eroriko zan
etsaien lazuan.
- 3/ Pizkorragorik iñork
ezagutu al du?
Diruagatik berriz
etziteken saldu.
Ez dakigu il egin
zuten ala galdu,
beintzat etzan geiago
etxean azaldu.
- 4/ Berriz olakorikan
ez degu sortuko,
gogoan degu danak,
etzaigu aztuko.
Aitonak esaten zun:
«Ez dek azalduko.
Zikiratu bagendu
ez uken galduko».

- 5/ Katu indartsua zan,
aundi ta gizena,
izugarrizko bibo-
teak zituena.
Beti egiten zuen
berak nai zuena,
Stalin jarri zion
amonak izena.
- 6/ Katu asko jakiña,
errespetokua,
ez dakigu eskertzen
aren meritua.
Amaika sube zar ta
sator garbitua,
aitonak ditu penak
ura faltatua.
- 7/ Guk alako katurik
ez degu ikusi,
ango sagu guziak
jan zitun lenbizi.
Arratoi zarrak laister
juan ziran igesi,
ta gaiñera bearko
nai bazuten bizi.

- 8/ Ura zan ango katu
danen nagusia,
etxean jaioa ta
mendian azia.
Arek egiten zuen
ango justizia,
amaika txori gaixok
utzi zun bizia.
- 9/ Galdu egin zitzaigun
ez dakigu nola,
ez gendun aztarrenik
atera iñola.
Ikusirikan arren
gizena zegola,
norbaitek jan bazuen
on egin deiola.

EUROPA BATUA

- 1/ Danon artean egin nai dute
orain Europa bakarra,
ez ote dago ortantxen ere
ondo pentsatu bearra?
Onenak berak jango dituzte,
an geldituko da txarra,
pozaren billa joan da ea
ekartzen degun negarra.

- 2/ Bentaja aundiak omen ditugu
Europa'n sartu ezkerro,
denbora izango da testigu,
ikusiko degu gero.
Guk berriz ere lan egin bear
eta angoak listero,
nundik geiena bilduko duten
badakite onezkero.

- 3/ Mesedegarri izango dala
batzuek ala diote,
beste batzuek ezin sinistu
ordea ikusi arte.
Lenago baju bizi diranak
pagatu bear badute,
jeneralean orain artean
ala egin izan dute.
- 4/ Gure larriak ez ditu asko
estutzen agintariak,
gu kezkatu bizi gerade,
auek dira komeriak!
Emen legeak jartzen dituzte
nai dutenean berriak,
geren buruak oietxen morroi
laister ditugu jarriak.
- 5/ Gure semeak aruntz soldadu
eta angoak onera,
leno nastuak gaudela baiña
kastaz mudatuko gera.
Gure arraza zikindutzea
ez al dakarte onera?
Bide ortatik nora goazen
ematen zaio tankera.

- 6/ Olaxen ibiliko gaituzte
alde batetik bestera,
garbitasuna zikinduko da,
arrazak nastuko gera.
Gure aitonen oitura onak
badijoazte galtzera,
erruki zaitut, bertsolariak
maite zaituzten izkera.
- 7/ Gu baiño aberatsago dira
len dauzkagun nagusiak,
guri on egiteagatikan
ote ziraden asiak?
Ez ote daude oiek tratuan
oso ondo ikasiak,
gero berentzat izatearren
gure ondasun guziak?
- 8/ Europa zar au bat egingo da
emen polleki-polleki,
gu gero ere besteren mende
jarraituko degu beti.
Zakur aundia ez da izango
mendekoaren erruki,
ark kozka nundik egin bear dan
guk baiño geiago daki.

IPARRALDEKO SENIDEAK

- 1/ Bidasoa'ren arunztik dauden
gure senide garbiak,
baserri txuri, soro berdeak
eta larrean ardiak.
Berdin gabeko garbitasuna
dute ango baserriak,
ta ni begira aspertu ezin
gozatzen nere begiak.

- 2/ Jakiñikan bat izan giñala
eta gaudela aparte,
nik galdetzen det gu ontaratzen
zeiñek artu zuen parte.
Geroztik onuntz ditugu mugak
ta dauzkagun aiña kate,
larri ziran, bai, zeru txiki au
bi pusketan jarri arte.

- 3/ Beti entzun det Euskalerra au
fameli bakarra dala,
ta berak ere badakite, bai,
jatorriz ala gerala.
Eta orduan gure oiturak
errespetatu ditzala,
ez beti izan erri onentzat
olako biotz zitala.
- 4/ Txarrak gerala baiña berentzat
gustora artu ginduzten,
nunbait aientzat onak izango
ziraden gauzak ikusten.
Txakurrak ere ez du ezurra
artzean nolanaï uzten,
biak igualak dirala oiek
ari dira erakusten.
- 5/ Gure arrebak omen dirade
Paris'ko neskame danak,
aiek egiten omen dituzte
ango aberatsen lanak,
len bizi ziran zeru ontatik
ango inpernura joanak,
emen utzirik jaiotetxea,
senide, aita ta amak.



- 6/ Paris frantzesen kapitala da
baiñan ez gustagarria,
an eguzkirik ez da artutzen
ta falta aize garbia.
Sano zegona an gaixotzen da,
ala nago igarria,
emen mendia degu guretzat
leku osasungarria.
- 7/ Oitura onak bazekizkien
gurasoairi ikasik,
baiñan aruntza joan zanean
aztu zitzaizkion guzik.
An ez da falta aingeru oiek
engañatzeko Judasik,
asko maiteko zaituzte baiño
laister zerade nai ezik.
- 8/ Aita ta amari gogor egin da
gaixoak geroztik lan du:
«Eskarmentuan orain sartu naiz
baiñan ordea berandu.
Aitortutzen det nik ez nituen
guraso txarrak izandu,
aien esanik ez egiteak
ninduen betiko galdu.

9/ Aita ta amak maitasun dana
eman ez giñan aziak,
bide txarreko tentazioak
jarri ginduen nasiak.
Zertako dira lujak eta
Paris'ko irabaziak,
bere eskutik uzten bagaitu
Jaungoikoaren graziak».

NEGOZIO BERRIA

Bertso auek jarri ditut, orain dala denbora gutxi, radiotik Alemani'ko kontu batzuk entzun da gero: an aurrakin zer negozio egiten dituzten. Alaxe, ura gogoratuta jarriak dira.

- 1/ Alemania'n gertatu dana radiotik adituta, egia dala diote baiña nago ezin sinistuta. Negozio ona omen daukate granujak alkar artuta, naiko dirua irabazteko besteren aurrak salduta.

- 2/ Radiotikan ikasi ditut
Alemani'ko berriak:
etxe apartak omen dauzkate
orretarako jarriak,
eta neskatxak aurretarako
nunbaitetik ekarriak.
Oraindik ere bizi dirade
Hitler'en animaliak.
- 3/ Txit bereziak omen dauzkate
orretarako artuak,
kristau bizien tratalariaik,
deabru amorratuak.
Kondenatzeko bildurrik gabe
zikinkerian sartuak,
nola lezake au ametitu
erri zibilizatuak?
- 4/ Indiziotik sortzen dituzte
nai duten aziarekin,
denbora askoan ibilliko du
ama gaixoak berekin.
Gero mundura etorriko da
bear dan denborarekin,
amak bularra emango dio,
aita zein duen ez jakin.

- 5/ Nazio oiek aurreratuta
daudela oso diote,
kristau fedea galdu zuten da
au ere sortu digute.
Gure aurreko guraso zarrak
ori aditu balute,
beste gaitzikan etzuten bear,
ilko ziran derrepente.
- 6/ Lengo batean radiotikan
etxean nik entzun nuan,
nola aurtxoak saltzen dituzten
txerrikumeen moduan.
Edozer gauza libre dago gaur
lotsa galdu dan munduan,
lengoak lengo, jaunak, au ere
aditu bear genduan!
- 7/ Au egitera iritxi dira
daukagun mundu nasian,
ez baidaukate sinismenikan
Jaungoikoaren grazian.
Jaiotzen danak agindutzerik
ez dauka bere bizian,
asiera or eman dute ta
laister da mundu guzian.

8/ Goitik begira an egongo da
guztiona dan Artzaia,
sei egun dauzka lanerako ta
santifikatzeko jaia.
Alare batzuk izaten dute
dana arrapatu naia,
or ikusten da dirua dala
mundu ontako etsaia.

BISTAN DAUZKAGUN MIRARIAK

- 1/ Arantzazu'ko Ama maitea,
eskean nator Zugana,
beti entzun det artzai gaixoen
Zaindari izan zerana.
Eta ni ere nola bainaizen
gaztetan artzai izana,
lagun zaidazu ondo egiten
asita daukaten lana.

- 2/ Bizi-lekua borda txiki bat
eta lagunak ardiak,
poztutzen nindun txorien kantak
ta eguzkiaren argiak.
Soroan zizak biltzen nituen
sortuak udaberriak,
nola etzaizkit gogoratuko
ango oitura garbiak?

- 3/ Ni berriz ere antxen biziko
nintzaden, bai, onezkero,
egin ditudan amets gozoak
egi biurtu ezkeru.
Gazte denboraz akordatzen naiz
orain zartu eta gero,
mendia dala gure zerua
pentsatzen det egunero.
- 4/ Oroi gaitezen zenbat lezaken
guztiona dan Jabeak,
zenbat zorion ote ditugun
asko eskertu gabeak:
gabeko intzak egunsentian
sortzen dituen loreak,
gure mendien apaingarriz
lurretikan atereak.
- 5/ Negua eta udaberria
Norbaitek egin zituan,
ori mirari aundi bat dala
izan dezagun kontuan.
Larrak lora ta arantzaz bete,
usai gozoa kanpuan,
ea oraingo zein jakintsuek
oiek egiten dituan.

- 6/ Geren begien bistan dauzkagu
guk miraririk aundiñak,
egindakoak gaurko gizonak
baiño geiago zekiñak.
Ta aintzakotzat ez ditu artzen
eskertutzen ez dakiñak,
aien ondoan piska dirade
oraingo asko-jakiñak.
- 7/ Gauz oiek danak ikasi gindun,
gero joan giñan zabartzen,
egi galantak bistan dauzkagu
ta ez ditugu eskertzen.
Gezur-maitale biurtutzean
egirik ez da maitatzen,
pentsa dezagun mundua ez dala
ilda bakarrik bukatzen.
- 8/ Gaixotutzean Jaunari eske
emateko osasuna,
il bear orrek danon barruan
sortzen du estuasuna.
Juez bat ere an izango da
zorrotz artuko gaituna,
merezi degun sariarekin
an pagatuko diguna.

9/ Emen daukagun ase-eziñak
geroko danak alperrik,
zuzentasuna eskatuko du,
Arek etzuen nai gerrik,
ez baizegoen anaiak alkar
iltzen ibilli bearrik.
Diruak eta politikak an
ez du izango indarrik.

NERE BURUARI

- 1/ Gaztea izan nintzan
baiñan orain zartu,
ondu egin bearrean
jenioa txartu.
Burua zuritu ta
gerria gogortu,
ez det aspaldi ontan
asko aurreratu.

- 2/ Zartzea da sendatu
ez liteken miña,
orrek txikitutzen du
gizonik aundiña.
Orain naiko txuleta
badaukagu baiña,
alare ez naiz leno
aza janda aiña.

- 3/ Txori-kabien billa,
saltoka jostatzen,
orduan ez giñaden
askorik nekatzen.
Garai artan ez gendun
orrela pentsatzen,
ara uste gabean
nola dan etortzen.
- 4/ Ez giñan nekatutzen
igotzen mendira,
errez joaten giñan
nai gendun tokira.
Salto egin da igual
aidean bi jira,
orain ementxe nago
besteai begira.
- 5/ Len ibiltzen giñanak
salto eta dantza,
uste gabe asi naiz
egiten balantza.
Ondo ibilitzeko
au dek esperantza,
eserita jartzean
ezin gaituk altza.

- 6/ Etzanda jartzen banaiz
gero nork mugitu?
Belarritikan ere
ezin det aditu.
Bista're bajatu ta
ajeak berritu,
demoniño gaiztoak
arrapatu gaitu.
- 7/ Gabez igual parranda
ta egunez lanean,
asko nekatu gabe
sasoia zanean.
Beti ibiltzen giñan
umore onean,
eziña etorri da
zartu geranean.
- 8/ Guk ere len ez gendun
sasoia ren palta,
orain leno bezela
ezin degu salta.
Desgastea ta reuma,
kojua galanta,
arpegia zimurra,
au degu au planta!

9/ Lagunikan onena
andrea orduan,
naiz beti ez ibilli
beraren onduan.
Aren esanak zintzo
egin baginduan,
geren buruarentzat
obeko genduan.

ASE EZIÑAK

Auek, berriz, lana ta lana ta dirua egin ta egin ta asetzen ez diran batzuei jarriak dira.

- 1/ Goierriko aitona,
txit langille piña,
aitzurrez makiña bat
luberri egiña.
Lana egitea zan
bere atsegiña,
ta orain gerrietan
omen dauka miña.

- 2/ Lana zer zan gazterik
ondo proatua.
amaika sasi badu
soro biurtua.
Errez ezagutzen da
gizon nekatua,
oso zartu baiño len
dago okertua.

- 3/ Zintzoak izateko
aitak eta amak,
ondo egin zituzten
gurason esanak.
Geroko ametsetan
bazituzten planak,
baiñan oker atera
zitzaizkaten danak.
- 4/ Gizona Antonio,
emaztea Lutxi,
aiek aitzurrik gabe
ezin zuten etsi.
Lana beti gaiñezka,
alimentu gutxi,
ta orain diru danak
besterentzat utzi.
- 5/ Urteak ere asko
zituzten paseak,
etxean naiko jana
ta erdi goseak.
Jaio egiten dira
olako klaseak,
orain illobak dabiltz
ederki aseak.

- 6/ Lana egiten dunak
bear baiño geio,
dirua osasuna
baiño ere naio.
Nunbaitetik ajea
azalduko zaio,
ta gero egin bear
munduari aio.
- 7/ Nik esaten nioten:
«Eindakoak jan zik»,
oraingo gizaldiak
ez omen du gatzik.
Nik ez det ezagutu
ain aitona latzik,
arek etzuen gaurko
drogazalen antzik.
- 8/ Otoitz egiten diot
joan dedin zerura,
lanerako jaioa
izan zan mundura.
Baba zarra jan eta
edan berriz ura,
etzan biguiña izan
aiton koxkor ura.

9/ Ta emaztea ere
alakoa izan
beti aitzurrarekin
kankaka baratzan,
gero ondo izango
ziran esperantzan.
Danak emen utzita
gaixoa joan zan.

AMARENGANA BILDU GAITEZEN

- 1/ Jakintsu bati itzalditxo bat
entzun genion lenguan,
ta esan zuen zarrentxoena
gurea dala munduan.
Garai batean dana euskeraz
itzegiten zan orduan,
erri maite au zero gozoa,
jaunak, izango genduan.

- 2/ Zuzenbide ta errespetuan
berdinduko zuten gutxik,
orain ederki mudatu zaigu
ta ez dauka lengo antzik.
Zulatzailleak ugari ditu,
etzaio falta arantzik,
oiek dirade gure erriak
jaso dituen galantzik.

- 3/ Orain nun dira aiton-amonen
lengo oitura garbiak,
zerutar usai gozoarekin
Artzai on batek jarriak?
Lur emalea nunbait izan au,
bai igarri're etsaiak,
on aundirik ez diote egin
etorri ziran izaiak.
- 4/ Amaika aldiz aitatzen degun
lenagoko lege zarra,
banaka ezer gutxi gerade,
bilduta degu indarra.
Ez al da pena gu geren erruz
onela ibili bearra?
Onek orrela segitzen badu
ez dator inpernu txarra.
- 5/ Babel'ko torre ura egiten
aspaldi ziran asiak,
ondo bukatu baiño lenago
guztiak zeuden nasiak.
Nunbait an ere etorri ziran
une samin ta gaziak,
orain olatsu gabiltza emen
galduta gure graziak.

- 6/ Ondo pentsatu bear genduke
gure izkuntza apala
Euskalerrian sortu geranon
Amatxo maitea dala.
Berarengana bildu gaitezen
oroituaz bat gerala,
ez bestei kulpak bota ta gerok
egin pekatu mortala.
- 7/ Indar aundiak artu dizkigu
emen *zu pekataria*'k,
batzuen erruz olaxen gaude
gu orain emen jarriak.
Gezurra jartzen bada agintzen
alperrik dira egiak,
guk, euskaldunak, badegu ordu
zabaldutzeko begiak.
- 8/ Garai batean Euskalerrriak
bazuen bere itzala,
Naparroa'ko Santxo errege
mundu ontan bizi zala.
Ura il zan da geroztikan da
gu onela gabiltzala,
bildu gaitezen Amarengana
ta ondo gorde gaitzala.

BERTSOLARI ZARRAK

- 1/ Eskola gutxirekin
baziran azkarrak,
garai artan emengo
bertsolari zarrak.
Ez det esango orain
dauzkagunik txarrak,
aiek ere kantatzen
zituzten edarrak.

- 2/ Lenguan gazte batek
asi ta segitun,
etzirala gaurkoak
ainbeste meritun.
Prantzesa ta Txirrita
ezagutu nitun,
guk aiek oso ontzat
eduki genitun.

- 3/ Gazteak gaurkoari
ematen meritu,
baiñan lengo aieri
pixka bat begitu.
Azkar bota bertsoa
ta itza garbitu,
naiz eskolaz gaurkoak
aiña ez argitu.
- 4/ Gaur asko argitu da
lengoen lanetik,
danerako bazuten
on eta txarretik,
letzen eta idazten
jakin gabe letrik;
jaio egiten ordea
iturri onetik.
- 5/ Orduan ezjakiñak
ziradela baiño,
ez da zanpatu bear
zarra ortaraiño.
Or daude ixpilluak
Bilintx ta Otaño,
aztuko ez diranak
emen egundaiño.

- 6/ Zizurkil'go *Kattarro*'k
etzuela bozik,
gaur e artu liteke
alakoia pozik.
Lotatik zenbat ote
ditu esnarazik?
Maisurik aundiena
bera gendun kasik.
- 7/ Aiek ziran orduko
bertsolaien pitxi,
maitasunai jarriak
etzituen gutxi.
Orain letzen ditugu,
eskerrak Bilintxi,
gogoan izango'ira
biar eta etzi.
- 8/ Plazetan bertsolari,
elizan kantore,
etzan txarra izango
Xenpelar bat ere.
Idatzi zituenak
paperean daude,
maisurik bat izandu zan
eskolarik gabe.

9/ Pena ematen dit au
bukatu bearrak,
gai ontan bazegoen
jartzea edarrak.
Beti izango dira
onak eta txarrak,
gora gaurko gazteak
eta lengo zarrak!

KUKUA

Bertso auek, lengo batean mendian nenbille-
la, kukua kantari sumatu ta alaxe jarriak dira.

- 1/ Lengo batean mendira joan da
or entzuten det kukua,
kezketan nengon ote ziñaden
betirako mututua,
edo bestela zaputz-aldin bat
zerbaitengatik artua;
udaberriak berriz izketan
or jarri digu mutua.

- 2/ Udaberriak badauzka ezin
eskertu aiña meritu:
negu beltzari bultzada eman
da eguzkia argitu,
soroak lore politez bete,
arbolak osto-berritu;
gauz oiek danak emen Norbaitek
mirariak egin ditu.
- 3/ Neguan mutu egon ziranak
ixilik beren zokuan,
oiek dirade gure ispillu
ta izan ditzagun kontuan.
Udaberriak piztuta pozez
berriz or dabiltz kanpuan,
ostoz beteta apaindutako
arbol-gaiñetan kantuan.
- 4/ Udaberria eta kukua,
zuek dezute meritu,
gure mendiak eta basoak
kuku ta kuku alaitu.
Segi aurrera ere olaxe,
etzaitezela gelditu,
negarrez dagon erri zar onek
alaitasuna nai baitu.

- 5/ Nik ondo dakit negua dala
gauza gogorra zuretzat,
igartu eta uzten baititu
ostoak eta loretzak.
Guk maitasuna nola ez izan
olako txori batentzat?
Udaberrian etorri berriz,
etzaitetz aztu guretzat.
- 6/ Ixil-aldia egin ondoren
azaldu udaberrian,
negua ondo gordeta pasa
arbol zarraren gerrian.
Urtero zintzo kantatuko du
an Erroma'ko zubian,
ta berriz ere etorri eta
kantatu gure mendian.
- 7/ Zure bidean zuzen zabilta,
etzaitu inork nastuko,
alaitu eta jartzen gaituzu
goizean jeiki orduko.
Zure kantua entzun nai degu,
guk etzaitugu aztuko,
zu etorriko ez baziñake
gu ez giñake poztuko.

8/ Negarrez eta asarre dabil,
arrazoi ere ez al du?
Kantatutzera etorritzen da
ta guk tiroka bialdu.
Ibili zaitetz mendirik-mendi
ta etzaitezela galdu,
agur, kukua, Martxora arte,
ta berriz ere azaldu!

EZKONBERRI BATZUEI

Ezkontza batean bazkalondoan kantatutako bertsoak dira auek, Andoain'go *Borda* esaten dioten jatetxean. Andregaiia ikastola batean andereño da, ta orretxegatik esaten diot azken bertsoan esaten diodana.

- 1/ Agur, lenengo ezkonberriak,
berdin aita eta amak,
ta zuengatik bazkari ontan
gaur bildu diraden danak.
Bere garaian egitekoak
dira onelako lanak,
jan degunak on ein dezaigula
eta gaitzik ez edanak.

- 2/ Bion arteko egarri ori
ara gaur betiko ase,
guraso zarrak beren garaian
egin zuten bezelaxe.
Alkar maiteak izan zaitezte,
Mirentxu eta Juan Joxe,
danon Jabeak urte askoan
gorde ditzala olaxe.
- 3/ Ezkondutzeak ere baditu
gauza gazi ta gozoak,
urte askoan iraun dezala
lotu zaituzten lazoak.
Noizbait izaten zeratenean
aurtxo baten gurasoak,
ez gero aztu erakustea
euskera ta errezoak.
- 4/ Barka zazute uste gabean
zerbait esan badet gaizki,
gure izkuntza euskera dala
jakingo dezute noski.
Ta zu, Juan Joxe, ibili lasai,
ez kezkarikan eduki:
umea nola ezi bear dan
andereñoak badaki.

ZAPELAITZ BATI

Bertso auek, gure amona zanari txitoak arrapatzen zizkion zapelaitz bati jarriak dira, ta onekin bukatzen det. Naikoak izango dira liburu ontarako noski.

- 1/ Egan dabiltzan egazti oiek
ere badira trapaak,
esango'izkizut, jakin ditzazun,
zapelaitz baten kontuak.
Anketan zenbat indar ote du
ta muturrean mokuak?
Sator da guzti eraman dizkit
soroan neuzkan zepuak.

- 2/ Orrek metroko subeak ere
azkar arrapatzen ditu,
arbolan puntan jarriko da ta
andik lurrera begitu.
Sagu, sator da arratoi zarra,
etzaitzela mugitu,
bestela arek umeengana
azkar eramango zaitu.
- 3/ Zapelaitz orrek bildurtzen ditu
azeria ta katuak,
esango'izkizut neronen begiz
ikusitako kontuak.
Gure etxean badauzkagu bi
ondo eskarmentatuak,
bati begia atera zion
ark sartutako mokuak.
- 4/ Katu zar orrek ez baitzuen len
orain ainbeste malezi,
ta uste zuen orduan ere
izango zala nagusi.
Mokoa sartu begitikan da
karrasi eta karrasi,
katu gaixoa etxe aldera
larri joan zan igesi.

- 5/ Ango zomorro danak jan zitun
umeak azi baiño len,
ark bazekien gure kolka ta
bere txitoak nun zeuden.
Etxe ondotik sagastiraiño
ateratzen baziraden,
estu ta larri ibiltzen ziran
gu begira ez bageunden.
- 6/ Egun batean zan komeria
gu danok deskuidatuta:
etxe ondotik eraman zion
txito aundi bat artuta.
Kolka gaixoaren zalapartak
bi egoak zabalduta!
Denbora joanda desapioka
amona asarretuta.
- 7/ Amaika txito bazuen jana,
bai, zapelaitz moko-motzak,
lanik txarrenak ematen zizkan
burruka astean ontzak.
Gure Joxeren eskupeta ark
kañoak izan zorrotzak,
ta egun batean kendu zizkion
ipurdi aldeko otzak.

8/ Kontrarioak arrapatzea
nunbait etzuen pentsatzen,
oillaskoakin bere umeak
zail du orain gobernatzen.
Denborak ere bearko ditu
atze-aldea sendatzen,
eskarmentua sartu diote,
ez da geiago azaltzen.

AURKIBIDEA

Itzaurrea.....	7
Amets gozoa gazitu	9
Oraindik ez da bukatu	15
Jesus Abrego'ri	19
Epele'ko iturria.....	23
Gure arrantzaleak.....	27
Antziñako guraso zarrak	31
Zozo baten negarra	35
Aiton baten kezkek	39
Guraso zarren bizimodua.....	43
Idi zarrarena.....	47
Besarkada bat.....	51
Gizon zur baten kontuak	55
Ilargia.....	59
Barrutik negarrez.....	63
Aritz baten bizitza	67
Burdeos'ko peria	71
Ordutik gaurkora.....	75
Elio bertsolariari	79
Ura eta ardoa.....	83
Oraingo gauzak.....	87
Zakur bati	91
Len eta orain.....	95
Etzaigu faltako gerrik.....	99
Oria ibaiari	103
Utzi-aldi bat egin ondoren	107
Julian Gayarre'ri.....	111
Burutazioak.....	115
Lexoti bertsolariari	119
Ernani eta euskera	123

Guraso zarrak.....	127
Baserritar bati entzun ondoren.....	131
Tren txikien eriotza	135
Alkartu bearra	139
Lengo aitonak	143
Txakur bati	147
Israel ta arabeak.....	153
Kanada'ko baso-mutil batek esanak	157
Emengo egoera	161
Robotak.....	165
Katu zar bati.....	169
Europa batua	173
Iparraldeko senideak.....	177
Negozio berria	181
Bistan dauzkagun mirariak.....	185
Nere buruari.....	189
Ase eziñak.....	193
Amarengana bildu gaitzen	197
Bertsolari zarrak.....	201
Kukua	205
Ezkonberri batzuei.....	209
Zapelaitz bati	211